



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Zuzenbide Fakultatea
Facultad de Derecho

Gehiengoaren eta gutxiengoaren eskubide-abusua kapitalezko sozietate itxietan

**GRADU AMAIERAKO LANA
ZUZENBIDEKO GRADUA
2015-2016 IKASTURTEA**

**EGILEA: AMAIA SORAZU URRESTI
ZUZENDARIA: ROSA OTXOA-ERRARTE GOIKOETXEA**

Donostian, 2015eko maiatzaren 17an

AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	4
LABURPENA.....	5
I. SARRERA	6
II. OHIKO KASUAK	7
1. Gehiengoaren abusua.....	7
<i>1.1. Irabaziak ez banatzea.....</i>	<i>9</i>
- Eskubide-abusua	10
- Banatze-eskubidea	14
<i>1.2. Estatutu aldaketak eta kapital eragiketak</i>	<i>18</i>
<i>1.3. Deialdia.</i>	<i>20</i>
2. Gutxiengoaren abusua	21
<i>2.1. Portaera oztopatzaileak</i>	<i>22</i>
<i>2.2. Abusua kontrol-eskubideen egikaritzan</i>	<i>23</i>
- Informazio-eskubidea	23
- Akordioak aurkatzea	25
<i>2.3. Abusua ekimen-eskubideen egikaritzan</i>	<i>26</i>
- Batzar orokorraren deialdia.....	27
III. ESKUBIDE-ABUSUAREN DOKTRINAREN APLIKAZIOA.....	28
1. Baldintzak	31
<i>1.1 . Objektiboki legezkoa dirudien eskubidearen egikaritzea, baina mugak nabarmen gainditzen dituena.</i>	<i>31</i>
- Eskubide bat egikaritzea egite edo ez egitez	31
- Objektiboki legezkoa dirudien eskubidearen egikaritzea	32
- Mugak nabarmen gainditzea: muga arruntak eta abusuzko portaerak.....	32

1. 2. *Bereziki babestua ez den interes baten kaltea*..... 34

2. Ondorioak

2.1. *Abusuak jarraitzea eragotziko duten administrazio- neurriak nahiz neurri judizialak* 35

- **Deuseztasuna**..... 36
- **Epailearen exekuzio ahalmena areagotzea** 36
- **Bazkidearen irteera edo kanporatzea**..... 38
- **Bestelako neurriak** 42

2.2. *Kalte-ordaina* 43

V. ONDORIOAK 44

BIBLIOGRAFIA 46

JURISPRUDENTZIA ETA EPAIAK..... 50

LABURDURAK

AC	Aranzadi Civil
AGE	Auzitegi Gorenaren epaia
BOE	Boletín Oficial del Estado
art.	artikulua
Ed	edizioa
EDJ	El Derecho Editores
EITL	Ekonomia-Intereseko Taldeen Legea.
ENZNE	Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpena
EPE	Entzutegi Probintzialeko epaia
KSL	Kapital Sozietate Legea
KZ	Kode Zibila
MK	Merkataritza Kodea
or.	orrialdea
RJ	Repertorio de Jurisprudencia
SPL	Sozietate Profesionalen Legea

LABURPENA

Kapitalezko sozietate itxietan ohikoak diren eskubide-abusu portaerak aztertzea da lan honen helburua. Horretarako, lehenbizi gehiengoaren eta gutxiengoaren abusu kasuen analisia egin dugu. Kasuistika zabala da, eta sozietateen bizitzan mota askotakoak izan daitezke sor daitezkeen gatazkak. Bestalde, esanguratsuenak diren egoerak aipatzen saiatu gara.

Behin arazoa identifikatuta ordenamenduak ematen duen erantzuna zein den aztertu dugu, hain zuzen, eskubide-abusuaren doktrinara jotzea. Instituzio honen aplikaziorako baldintzak aztertu ditugu lehenbizi, baina ekarriko dituen ondorioetan jarri dugu arreta berezia. Nahiz eta doktrinak arazoari ematen zaion erantzunean hutsune nabariak identifikatu, benetan baliagarri eta erabilgarri izan daitezkeen neurriak proposatzen ditu. Azken batean, lanaren helburua izango dugu identifikatutako gatazkari konponbidea emateko aplikagarri izan daitezkeen neurriak biltzea.

Hitz-gakoak: sozietate itxiak, gehiengoaren abusua, gutxiengoaren abusua, interes soziala, eskubide-abusua.

I. SARRERA

Sozietate-bizitzan ohikoak izaten dira bazkideen arteko gatazka iraunkor eta konponezinak. Sozietate Zuzenbidea halako egoerei aurre egiteko kapitalaren jabetzan oinarritzen da, **gehiengoaren printzipioa** ardatz izanik. Halere, gehiengoaren arau honek arrisku bat dakar berarekin: gehiengoak boterea modu arbitrarioan erabiltzea kontrolik ez duten bazkideen kaltetan. Aldiz, gehiengoaren abusu hau ekiditeko gutxiengoari zenbait eskubide aitortzen zaizkio eta aldi berean, gutxiengoa eskubide huez baliatzen da bere posizio juridikoa modu arbitrarioan erabiltzeko.

Bazkideek, azken finean, aitortzen zaizkien eskubideak egikaritzen dituzte, baina gerta daiteke beraien jokaera ez etortzea bat interes sozialarekin, eta gainerako bazkideak kaltetzea izatea helburu edo probetxu propio bat bilatzea. Era honetan, ikusiko dugu zenbaitetan bai gehiengoak eta gutxiengoak abusuz jarduten dutela, eta halako egoeren aurrean erantzun eta konponbidea zein den aztertzen saiatuko gara.

Bestalde, gehiengoaren eta gutxiengoaren abusu portaera hauek **kapitalezko sozietate itxietan** aztertzea murriztuko dugu gure lanaren objektua. Egia da kapitalezko sozietate kotizatueta ere eman daitezkeela halako egoerak, baina burtsan kotizatzen duten sozietateak entitate publikoen kontrolpean egoteak eta jarraitu beharreko gardentasun eta publizitate irizpideek eragiten dute, halako gatazketan bazkideen eskubide eta interesak neurri handiago batean babestea¹. Era honetan, kapitalezko sozietate itxietan ematen dira bereziki aztergai izango ditugun abusu egoerak. Eta hau horrela izatearen funtsa, jarraian aztertuko ditugun kapitalezko sozietate itxiek dituzten ezaugarrietan dago².

Lehenik eta behin, **bazkide kopurua murrizta** izaten da eta sarri bazkideak familiakoak edo lagunak izaten dira. Kapitalaren jabetzaren kontzentrazio honek sozietatearen baitan botere nukleo argiak sortzea eragiten du. Hala, botere hori agerian

¹ GINÉS CASTELLET, Nuria. (2013). Impugnación de acuerdos sociales y abuso de derecho: algunas reflexiones para el ordenamiento jurídico español a la luz de la experiencia francesa. *Revista de Derecho de Sociedades*, 40, 273-315. 274 or.

² MARÍN DE LA BÁRCENA GARCIMARTÍN, Fernando. (2010). Opresión de la minoría, STS 1ª de 5 de marzo de 2009 (RJ 2009, 1629). *Revista de derecho de sociedades*, 34, 331-346. 334 or.

jar daiteke bai gehiengoaren kontrolarekin, baina baita blokeo gaitasunaz baliatuta gutxiengoaren kontrolarekin.

Bigarren ezaugarria da bazkideek **enpresa-jardueran modu zuzenean parte hartzea**. Batetik, administrazio organoko kide bezala, enpresako langile bezala edota bestelako zerbitzuak eskainiz. Bestetik, ordaindutako jarduera horiez gain, ohikoa da sozietate itxietan bazkideek Batzar Orokorrean parte hartzea, erabaki sozialetan duten interesa eta bertan eragiteko duten gaitasuna tarteko.

Hirugarrenik aipatu, **kuota soziala saltzeko merkatuaren inexistentzia**. Izan ere, orokorrean bazkideek mugatu egiten dute bazkide berrien sarrera, partizipazio sozialen transmisioa guztiz baldintzatua geratzen delarik. Gainera, kapital “ezezagunarentzat” ez da erakargarria suertatzen enpresan inbertitzea. Era honetan, bazkideen arteko merkatua soilik sortzen da.

Ezaugarri hauek eragiten dute sozietate itxietan ematea bereziki abusu portaerak. Sozietate itxiez hitz egitean, hauek sozietate tipologian kokatzekotan, prototipoa erantzukizun mugatuko sozietatearena izango litzateke, Legeak sozietate mota nagusiki itxi bezala aurkezten baitu. Hori bai, sozietate anonimoarekin antzekotasun gehiago ditu sozietate pertsonalistekin baino. Bestalde, sozietate anonimoak duen malgutasunak polibalentzia funtzionala ematen dio. Modu honetan, sozietatea bazkide kopuru txiki batek dituen nahi eta beharretara moldatzeko aukera ematen du. Azken batean, ez da hain erabakigarria aukeratutako sozietate mota, baizik eta jabetzaren barne egitura, honek sortzen baititu gehiengoaren eta gutxiengoaren arteko gatazkak.

II. OHIKO KASUAK

1. Gehiengoaren abusua

Aurrez aipatu dugun moduan, kapitalezko sozietateen funtzionamendua **gehiengoaren printzipioan** oinarritzen da. Printzipio hau jarraiki osatzen da sozietatearen borondatea, boto eskubidearen egikaritzearen bidez. Hala, legeak eta estatutuek jasotakoa errespetatuz, gehiengoak erabakitzen duena da sozietatearen borondatea, eta hau osatzen dutenek ontzat hartu behar dute.

Gehiengoaren printzipio honek, aldiz, erraztu egiten du zilegi ez den presio bat egitea kuota kualifikatu bat duten bazkideek, sozietatearen erabakietan eragina izateko gaitasunik ez duten bazkideengan. Modu berean, gehiengoaren printzipioak ekar dezake kontrola duten bazkideek interes extrasozialak jarraitzea, Batzar Orokorretan interes legitimo bailira ezkutatuz.

Azken batean, gehiengoaren zapalkuntza jarrerak kontrola ez duten bazkideen interesa baztertzea dute helburu, modu eksklusiboan lortzeko enpresa-jardueraren irabaziak, eta zapal dutako bazkideak sozietatetik kanporatzeko, euren parte hartzea prezio guztiz desegokian eskuratuz. Zapalkuntza taktiken helburua gutxiengoa duen bazkideri administraziorako sarbidea eta sozietatearen inguruko informazioa ukatzea da, aldi berean inolako irabazi edo onurarik eman gabe. Guzti honekin lortu nahi da epe batez sozietateak bazkideari inolako onurarik ez ekartzea eta hasieran eginiko inbertsioa ez berreskuratzea, eta egoera honetan ikusten denean bere kuotaren erosketa negoziatzea³.

Gauzak horrela, sozietateen bizitza gehiengoaren printzipioa jarraituz antolatu arren, honek ez du esan nahi gehiengoaren boterea absolutua denik, honek bere mugak izango baititu. Era honetan, eskubide-abusuaren doktrinara joko dugu halako desorekak sortzen dituzten botere gehiegikeria egoerei erantzuna emateko.

Bestalde, abusuaren doktrina aplikatzeko eman beharreko baldintzak, hirugarren atalean aztertuko ditugu. Jarraian, ohikoenak diren kasuak aztertzeari ekingo diogu, lehenik eta behin, Batzar Orokorren eremuan ematen diren abusu portaerak aztertuz. Izan ere, kasuistika zabalena akordio sozialak hartzean ematen da. Modu honetan, lehenik irabaziak ez banatzearen erabakia jorratuko dugu, portaerarik ohikoena den heinean. Kasuz kasu ez dugu aztertuko zein den konponbidea, guztietan ere eskubide-abusuaren instituziora jo beharko dugulako, eta horregatik aztertuko dugu hirugarren atalean gai hau. Bestalde, irabazien banaketa ezaren kasuan bai ikusiko dugu zein den arazoari ematen zaion erantzuna doktrinak honen inguruan luze jardun baitu eta benetan

³ MARÍN DE LA BÁRCENA GARCIMARTÍN, Fernando. (2010). Opresión de la minoría, ob.cit. 335 or.

korapilatsua den gai bat baita. Bestetik, jarraian estatutu aldaketan eta deialdiaren inguruko kasuak izango ditugu hizpide.

1.1. Irabaziak ez banatzea

Irabaziak ez banatzea da gehiengoak gutxiengoaren kaltetan praktikatzen duen abusuzko portaera ohikoena. Hain zuzen, Kapital Sozietateen Legeak bazkideei aitortzen dizkien eskubideetan lehena da irabazietan parte hartzekoa (KSL 93.a. art.). Bestalde, KSLren 160.a) artikuluan Batzar Orokorrari aitortzen zaio emaitzen aplikazioaren inguruan erabakitzeke eskumena.

Era honetan, doktrinak ia modu bateratuan onartzen duenez, irabazietan parte hartzeko eskubidea **ez da eskubide absolutua**⁴, irabaziak izatera eta hauen banaketaren aldeko akordioa onartzera baldintzatua dagoen eskubidea kontingentea baizik⁵. Batzar Orokorraren esku dagoen erabakia den heinean, ez da ezohikoa izaten enpresaren autofinantzaketa neurri bezala, irabaziak erreserbetara bideratzea erabakitzea.

Irabaziak erreserbetara bideratzea gehiengoa duten bazkideentzat interesgarri izan ohi da, gutxiengoarentzat kaltegarri suertatzen den bitartean⁶. Gehiengoarentzat interesgarria, hauek orokorrean sozietateen administratzaile izaten direlako, eta euren kudeaketa boterea indartua ikusten dutelako irabazien metaketaren bidez egitura finantzario sendoa duen enpresa antolaketa batean⁷. Gainera, sarri sozietateetako zuzendari eta administratzaile izaten direnez, esanguratsuak diren ordainsariak jasotzen dituzte. Gisa honetan, irabaziak ez banatzeak ondorio ekonomiko ezberdinak izango ditu gutxiengodun bazkideekin alderatuta.

Bestalde, gutxiengodun bazkideen kasuan suntsitzaileak izan daitezke merkatu likido baten faltak dituen efektuak. Izan ere, erabakiak kontrolatzen ez dituzten eta

⁴ VICENT CHULIÁ, Francisco. (2012). *Introducción al derecho mercantil. Vol I.* Valencia: Tirant lo Blanch. Ed. 23. 595 or; FERNANDEZ DE LA GÁNDARA, Luis. (2010). *Derecho de sociedades. Vol I.* Valencia: Tirant lo Blanch. Ed. 1. 427 or.

⁵ AGE 1996-10-10 (RJ 1996\7063).

⁶ GINÉS CASTELLET, Nuria. (2013). Impugnación de acuerdos sociales, ob.cit. 278 or.

⁷ CHAMPUD et DANET. (2006). Abus de majorité. Rémunération des dirigeants. Dépenses de communication. Mise en réserve des bénéfiques. Décisions constitutives d'abus de majorité. *Revue Trimestrielle de Droit Commercial.* 376-377. 376 or.

inolako onurarik ekartzen ez dien entitate batean ikusiko dute euren burua, desinbertsiorako modurik aurkitu gabe. Agerikoa da beraz, interes kontrajarriek talka egiten dutela, gutxiengodunek ahalik eta azkarren ahalik eta dibidendurik altuenak eskuratu nahi baitituzte. Egia da, aldi berean, gehiengoari ere eragingo diola politika honek eta gainera proportzio handiagoan, baina ez dugu ahaztu behar sozietatean duten posizioaz baliatuta bestelako sarrera-iturriak erdiesten dituztela.

Cebriák adierazten duenez titulu eta partizipazioen likidezia ezarekin aurkitzen den bazkidea antolaketa sozialaren “urrezko kaiolan” preso aurkitzen da. Egoera honek, aldi berean, ez du sustatzen ez inbertsioa ez eta eskubide indibidualak eta gutxiengoaren eskubideak egikaritzea, jakinik desinbertsiorako denbora edota irabaziren bat lortzea bazkide batzuen esku dagoela⁸. Egoera honetan, lortutako irabazien banaketa eza justifikatzen duen kausa gabezia eta Batzar Orokorraren arteko dibergentziak, **sozietate kontratuaren kausa** urratzen du: “irabazi asmoa”⁹ eta “irabaziak banatzea”¹⁰.

Halako egoerei erantzuna emateko bi konponbide posiblerekin aurkitzen gara: eskubide-abusuaren instituzioa eta banaketa-eskubidea.

- **Eskubide-abusua**

Hurrengo atalean aztertuko dugu zein den eskubide-abusuaren doktrinaren izaera orokorra eta honen aplikaziorako beharrezko baldintzak. Bestalde, orain irabaziak ez banatzearen kasuan, abusuzko izaera onartzeko eman beharreko ezaugarriak aipatzen saiatuko gara. Izan ere, kasu honetan bilatuko dugun berezitasuna izango da, nahiz eta abusu izaera aitortu portaerari, gutxiengoaren babes efektiboa lortzeko ohikoak baino neurri gehiago eskatzen direla.

Baina has gaitezen lehenbizi eman beharreko baldintzekin. Lehenik eta behin, kontuan izan behar da irabaziak erreserbetara bideratze hutsa, bere horretan, ez dela negatiboa eta interes sozialaren aurkakoa. Soilik inguruabar jakin eta konkretuak

⁸ HERNANDO CEBRIÁ, Luis. (2013). El abuso de la posición, ob.cit. 107 or.

⁹ MK 116 art: “*El contrato de compañía, por el cual dos o más personas se obligan a poner en fondo común bienes, industria o alguna de estas cosas, para **obtener lucro**, será mercantil, cualquiera que fuese su clase, siempre que se haya constituido con arreglo a las disposiciones de este Código*”.

¹⁰ KZ 1665 art: “*La sociedad es un contrato por el cual dos o más personas se obligan a poner en común dinero, bienes o industria, con ánimo de **partir entre sí las ganancias***”.

ematen direnean kontsideratu ahalko da behin eta berriz irabaziak ez banatzeko erabakia abusuzkoa dela¹¹. Erregela orokorra da abusuzko izaera aitortzeko gertaerek muturreko izaera izan behar dutela, eta sistematikoa izateaz gain beharrezkoa da inolako justifikaziorik ez izatea¹². Izan ere, nahikoa izaten da edozein justifikazio minimoki arrazoizkoa auzitegiek erabakia baliozko jotzeko, dibidenduak denbora luzez banatzen ez diren kasuetan ere¹³.

Esan bezala, jurisprudentzia zorrotz agertzen da eskubide-abusua inbokatzean, eta ondorioz abusuaren existentzia oinarritzen duten froga eztabaidaezinak beharrezkoak dira, kontuan hartuz Batzar Orokorraren subiranotasunari mugak jartzea dagoela jokoan. Modu honetan, ez da nahikoa alegatzea erreserba maila oso altua dela, gainerako baliabide propioak sektoreko enpresen batz bestekoaren oso gainetik daudela, edota zenbateko hori ez dela inolaz ere beharrezkoa sozietatearen garapen arrunterako, inguruabar hauen aurrean bestelako elementuak aurkezten badira, zeinetatik ondoriozta daitekeen batzarraren erabakia ez dela larritasunezko gehiegikeria¹⁴. Modu berean, ez da nahikoa frogatzea irabaziak ez direla banatu ekitaldi ugaritan edota sozietatearen egoera ekonomikoa eroso dela¹⁵.

Ondorioz, jurisprudentiaren argitan eskubide-abusuaren instituzioak Batzar Orokorraren askatasunari mugak jar diezazkiokeen arren, horretarako aurkaratzaileak froga eta arrazoiketa lan sakona egin beharko du¹⁶. Hortaz, Alfarok modu argian laburtzen digu egoera: dibidenduen banaketaren aurkako erabakiak aurkatzea posible izan arren, ez da hain erraza berrinbertsio erabakia abusuzkoa deklaratzeko. Horren froga

¹¹ GINÉS CASTELLET, Nuria. (2013). Impugnación de acuerdos sociales, ob.cit. 279 or.

¹² IRIBARREN, Miguel. (2015). *Los acuerdos de retención de beneficios y la protección de la minoría en la sociedad limitada*. <http://almacenederecho.org/los-acuerdos-de-retencion-de-beneficios-y-la-proteccion-de-la-minoria-en-la-sociedad-limitada/>

¹³ VARGAS CAMPINS, Aurora eta ALFARO ÁGUILA-REAL, Jesús. (2014). Abuso de la mayoría en el reparto de dividendos y derecho de separación del socio en las sociedades de capital. *Liber amicorum Juan Luis Iglesias*, 65-93, 74 or.

¹⁴ EPE Ourense 2010-02-25 (JUR 2010\209293); EPE Alicante 2010-07-15 (AC 2010\1506).

¹⁵ EPE Madrid 2009-12-23 (JUR 2010\92632).

¹⁶ IRACULIS ARREGUI, Nerea. (2011). Impugnación del acuerdo de no repartir dividendos: atesoramiento abusivo de los beneficios. *Revista de Derecho Mercantil*, 281, 251-270. 265 or.

argia da banaketaren aurkako erabaki gutxi deklaratu izana deusez¹⁷ eta erabaki judizialen zati handi batek erabakien baliozkotasuna deklaratzeari¹⁸.

Are gehiago, portaera abusuzkoa kontsideratu arren eta efektu gabea deklaratu irabaziak ez banatzeko erabakia, deuseztasunak ez du ekarriko epaileak irabazien banaketa agintzea¹⁹. Hau horrela izaten da, auzitegiek *business judgment rule* delako printzipioa aplikatzen dutelako, zeinaren arabera epaileek ezin duten ordeztu organo sozialen borondatea²⁰. Printzipio honetan oinarrituz epaileek sozietatearen barne gaietan esku ez hartzeko hautua egiten dute, gure sisteman aldarrikatzen den enpresa askatasunean oinarrituz.

Printzipio honen aplikazioak, beraz, zaildu egiten du erabakia abusuzkoa deklaratzeari, sozietateak alegatutako edozein zirkunstantzia enpresarial nahikoa izango delako baliozkoa kontsideratzeko. Izan ere, irabazien pilatzeak finantziario propioaren handitzea eragingo du, kanpo finantziarioa jotzeko beharrik izan gabe²¹. Gauzak horrela, doktrinaren sektore batek²² **proposamen berritzaile** bat egiten du: frogaren karga sozietateak izatea eta ondorioz, gehiengoak justifikatu behar izatea irabaziak ez banatzea.

Nerea Iraculisek²³ argitzen digunez, planteamendu honen abiapuntua bazkideei irabazietan parte hartzeko eskubide subjektiboaren aintzatespenean dago. Modu honetan, **urtero dibidenduak jasotzea arau orokor bihurtuko litzateke, eta**

¹⁷ VARGAS CAMPINS, Aurora eta ALFARO ÁGUILA-REAL, Jesús. (2014). Abuso de la mayoría, ob.cit. 9 or.

¹⁸ EPE 2000-09-21 (AC 2000\2056), EPE Valencia 2008-10-13 (AC 2008\2073), EPE Madrid 2009-12-23 (JUR 2008\167454).

¹⁹ VARGAS CAMPINS, Aurora eta ALFARO ÁGUILA-REAL, Jesús. (2014). Abuso de la mayoría, ob.cit. 9 or.

²⁰ IRACULIS ARREGUI, Nerea. (2011). Impugnación del acuerdo, ob.cit. 269 or.

²¹ EPE Madrid, 2009-09-24 (JUR 2009\470747).

²² Horien artean: VARGAS CAMPINS, Aurora eta ALFARO ÁGUILA-REAL, Jesús. (2014). Abuso de la mayoría, ob.cit. 10 or.; IRACULIS ARREGUI, Nerea. (2011). Impugnación del acuerdo, ob.cit. 273 or.; SANCHEZ-CALERO GUILARTE, Juan. (2011). *Sequía de dividendos y abuso de la mayoría*. <http://jsanchezcalero.com/sequia-de-dividendos-y-abuso-de-la-mayoria/>

²³ IRACULIS ARREGUI, Nerea. (2011). Impugnación del acuerdo, ob.cit. 266 or.

irabaziak pilatzea salbuespen²⁴. Arrazoiketa honek bi oinarri ditu²⁵: batetik, irabaziak banatzeak sozietate kontratuaren kausa tipikoari erantzuten diola, hots, irabazi asmoari; eta bestetik, bide hau dela modu bakarra gehiengoaren portaera arbitrarioen aurrean gutxiengoa babesteko.

Auzitegi Gorenak 2005eko maiatzaren 26ko epaian azaldutako ideiarri heldu zion, eta benetan aurrerakoia den ebazpena eman zuen²⁶. Bertan jasotzen zen abusuzko portaera dela inolako kausarik gabe gutxiengoa duen bazkideak modu sistematikoan irabazirik ez jasotzea, zeinak ezin duen Auzitegien babesia izan, zilegitasun falta nabarmena duen jarrera den heinean. Gutxi izan arren, maila apalagoko zenbait Auzitegik ere ildo berean egin dituzte adierazpenak²⁷. Agerian jartzen dute ez dela nahikoa modu orokorrean arrazoitzea irabaziak erreserbetara bideratzeak bazkide guztiak mesedetzen dituela. Ez baita bazkideen interesekin bateragarria, eta hala, dibidenduak eskuratzea funtsezko helburu den heinean, erabakia automatikoki abusuzkoa da.

Proposamen honek bere oinarria bilatuko luke KSLren 93 artikuluan, zeinak bazkideen lehen eskubide jasotzen duen irabazietan parte hartzekoa. Xedapen honetan oinarritu gintezke esateko sozietateak ezin dituela sistematikoki irabaziak pilatu banatu gabe. Ikuspuntu berritzaile honetatik, arau orokorra irabaziak banatzea izango litzateke, eta honek ekarriko luke irabaziak pilatzeko beharra gehiengoak justifikatzea. Modu honetan, ez litzateke nahikoa izango argudiatzea irabaziak pilatzea kanpo finantziatziora jotzea ekiditeko modua dela²⁸, likidezia bermatu eta balizko ordainketen atzeratzea

²⁴ VARGAS CAMPINS, Aurora eta ALFARO ÁGUILA-REAL, Jesús ALFARO. (2011). El abuso de la mayoría en la política de dividendos. Un repaso por la jurisprudencia. *Otrosi*, 5, 19-26. 22 or.

²⁵ SANCHEZ-CALERO GUILARTE, Juan. (2011). *Sequía de dividendos*, ob.cit.

²⁶ AGE 2005-05-26 (RJ 2005\5761). “*Privar al socio minoritario sin causa acreditada alguna, de su derecho a percibir los beneficios sociales obtenidos y proceder a su retención sistemática, se presenta a todas luces como una actuación abusiva, que no puede obtener el amparo de los Tribunales, pues se trata de una actitud impeditiva afectada de notoria ilicitud*”.

²⁷ EPE Araba 2010-10-19 (JUR 2010\48604); EPE Islas Baleares 2010-12-22 (JUR 2011\106693).

²⁸ EPE Alicante 2000-09-27 (JUR 2001\ 6706).

ekiditeko modua²⁹, edota krisi ekonomikoa dela eta hartutako erabakia³⁰. Azken batean, orokortasunetan oinarritzea ez zen nahikoa izango.

Ondorioz, orain arteko guztia kontuan hartuz gaur egun halako egoera bati irtenbidea aurkitzea ez da kontu erraza. Arau orokorra batzarraren erabakitzeko askatasuna izanik, muga bakarra eskubide-abusuarena da. Kasurik onenetan erabakia baliogabea deklaratzeko lortzen da, baina irabazietan parte hartzeko eskubidea aitortu eta banaketa agindu gabe. Bestalde, hizpide izan dugun proposamena jarraituta, arau orokorra banaketa izango litzateke, eta ondorioz erabakia abusuzkoa deklaratzeko gain epaileek administratzaile eta bazkideei irabaziak banatzera behartzeko bidea izango litzateke³¹.

Azken batean, sozietate bateko kide izatearen azken helburuetako bat irabazi batzuk lortzea da³². Ideia honetatik abiatuz arrazoizkoa dirudi arau orokorra irabazien banaketarena izatea, eta sozietateak izatea aurkakoa frogatzearen karga. Honek aldi berean ekarriko luke abusuzko portaerei amaiera jartzeko bidea. Hori bai, beti ere gogoan izanez ez dela nahikoa portaera abusuzkoa deklaratzeko. Honek epailearen jardura aktiboaz lagunduta joan behar du, bai banatu beharreko proportzioa zenbat den zehaztuaz edo batzarri aginduz irabaziak banatzeko, gero honek ezarriz banaketa irizpideak. Aurrerago ikusiko dugunez, irabaziak ez banatzearen kasuan ez ezik, bestelako gatazka askotan, giltzarria epaileari erabaki eta jardute eremu zabala aitortzean egongo da.

- **Banatzeko eskubidea**

Ikusi dugun moduan ez da bide erraza eskubide-abusuan oinarrituz gutxiengoak benetako babesaren izan eta bere interesak asetzeko. Egoera honen aurrean legegileak konponbide bat aurkitu nahi izan du eta abusuzko portaera hauei amaiera jartzeko

²⁹ EPE Araba 2010-10-19 (JUR 2010\408604).

³⁰ EPE Barcelona 2011-01-21 (JUR 2011\182705).

³¹ VARGAS CAMPINS, Aurora eta ALFARO ÁGUILA-REAL, Jesús ALFARO. (2011). El abuso de la mayoría en la política de dividendos. Un repaso por la jurisprudencia. *Otrosi*, 5, 19-26. 22 or.

³² IRACULIS ARREGUI, Nerea. (2011). Impugnación del acuerdo, ob.cit. 269 or.

asmotan xedapen berri bat txertatu zuen: KSL-ren 348 bis artikulua³³. Bertan aitortzen da bazkidearen banatze eskubidea irabaziak banatzen ez diren kasu konkretuetarako. Esan beharra dago zuzenbide konparatura jota gutxiengoaren zapalkuntzari amaiera jartzeko ohiko mekanismoa dela banatze eskubidea aitortzea. Bestalde, doktrinak, jurisprudentziak eta enpresa sektoreek izugarri kritikatu dute³⁴ eta momentu hauetan bere aplikazioa etenda dago.

Beste askoren artean Alfarok³⁵ goraiatu du printzipioz irabazien banaketa ezaren aurrean ideia on bat izan dela eskubide honen aitortza, baina arazoa artikulazioan eta erredakzioan dagoela. Has gaitezen bada, artikulua azterketarekin, zeinak bost baldintza jasotzen dituen eskubidea egikaritu ahal izateko.

- Sozietatea Merkataritza Erregistroan inskribatzen bost ekitaldi igaro izana.
- Batzarrak ez erabakitzea dibidenduen banaketa, gutxienez objektu sozialaren ustiapen propiotik etorritako irabazien heren batean.
- Bazkideak irabazien banaketaren alde botoa eman izana.
- Banatzeko eskubidea egikaritzea batzarra ospatzen hilabeteko epean.
- Ez izatea sozietate kotizatua.

³³ Honen bidez txertatua: Ley 25/2011, de 1 de agosto, de reforma parcial de la Ley de Sociedades de Capital y de incorporación de la Directiva 2007/36/CE, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 11 de julio, sobre el ejercicio de determinados derechos de los accionistas de sociedades cotizadas, BOE núm. 184 de 2 de Agosto de 2011. “1. A partir del quinto ejercicio a contar desde la inscripción en el Registro Mercantil de la sociedad, el socio que hubiera votado a favor de la distribución de los beneficios sociales tendrá derecho de separación en el caso de que la junta general no acordara la distribución como dividendo de, al menos, un tercio de los beneficios propios de la explotación del objeto social obtenidos durante el ejercicio anterior, que sean legalmente repartibles. 2. El plazo para el ejercicio del derecho de separación será de un mes a contar desde la fecha en que se hubiera celebrado la junta general ordinaria de socios. 3. Lo dispuesto en este artículo no será de aplicación a las sociedades cotizadas”.

³⁴ ALTIRRIBA VIVES, Xavier eta CUENCA MÁRQUEZ, Juan. (2013). El derecho de separación y la figura de la exclusión de socios. *Iuris: actualidad y práctica del derecho*. 198. 30-36. 34 or.

³⁵ VARGAS CAMPINS, Aurora eta ALFARO ÁGUILA-REAL, Jesús. (2014). Abuso de la mayoría, ob.cit. 12 or.

Bigarrena da kritika gehien jaso dituen baldintza. Izan ere, bertatik uler daiteke **irabaziak ez banatze oro per se abusuzkoa** dela. Alfarok eta Campinsek³⁶ azaltzen digutenez, sozietatearen sorreratik bosgarren urtetik aurrera LSC 348 bis artikulua bazkideei irabazien banaketa partzial periodiko bat bermatzea du helburu. Hala ere, dibidenduen banaketa-arau baten bidez egin beharrea eta banaketa errekurtsu subsidiario bezala ezarri, zuzenean ematen da aukera, banatzeko aukera aitortuz egoera edozein dela ere. Hauen iritziz, aurrez aztertu dugun bezala, banaketa arau orokor eta irabaziak pilatzea salbuespeneko arau bihurtu beharko litzateke, eta banatze eskubidea *ultima ratio* mekanismo bezala erabili.

Arauaren **aplikazioa salbuesteko egoerarik** aurreikusi ez izana da ezbaian jartzen dena³⁷. Batetik, ez hartzea kontuan ez dela gauza bera sozietateen kontabilitate egoera eta finantza-egoera. Posible delako sozietate baten urteko kontuek emaitza positiboa izatea, baina sozietateak likidezia falta izatea edota, egungo egoera ekonomikoan, bezeroen ordainketa ezak direla eta zorpetze handia izatea. Baita ere, kapitalizatzea aurreikustea etorkizuneko inbertsioei aurre egiteko, edota, hirugarrenekin –batez ere banketxeekin- hitzartu izana dibidenduak ez banatzeko konpromisoa. Halako egoerak kontuan ez hartza ez ezik, banatu beharreko irabazien zenbatekoarekin ere ez da ados agertzen doktrinaren gehiengoa³⁸.

Azken batean, doktrinaren ia gehiengo osoak³⁹ salatu duena da irabaziak ez banatzea automatikoki gehiengoaren abusuzko portaera kontsideratzea. Are gehiago, bazkideei halako boterea aitortzeak eragitea bazkideak sozietatearekiko kreditu baten hartzekodun

³⁶ VARGAS CAMPINS, Aurora eta ALFARO ÁGUILA-REAL, Jesús. (2014). Abuso de la mayoría, ob.cit. 13 or.

³⁷ LUCAS MARTIN, Elisa Pilar. (2013). *Somera descripción de la lógica del artículo 348 bis LSC*. [http://eprints.ucm.es/21684/1/Somera descripci%C3%B3n de la l%C3%B3gica del art. 348 bis LSC .pdf](http://eprints.ucm.es/21684/1/Somera_descripci%C3%B3n_de_la_l%C3%B3gica_del_art._348_bis_LSC.pdf)

³⁸ IBAÑEZ GARCIA, Isaac. (2011). *Sobre el derecho obligatorio al dividendo ¡Qué barbaridad!*. <http://hayderecho.com/2011/07/27/sobre-el-derecho-obligatorio-al-dividendo-%C2%A1que-barbaridad/> “abusiva y desproporcionada [...] No alcanzo a comprender cómo el legislador ha llegado a establecer tan alta cifra de reparto. En mi opinión, se vulnera también el principio de proporcionalidad...”

³⁹ VAZQUEZ LEPINETTE eta beste salbuespen batzuk aparte, gaiaz arduratu diren ia autore guztiek hala uste dute. VARGAS CAMPINS, Aurora eta ALFARO ÁGUILA-REAL, Jesús. (2014). Abuso de la mayoría, ob.cit. 78 or.

bilakatzea, eta hauek ordaindutako gordailu entitate, arrisku argi batekin: gehiengoaren abusu egoerei amaiera jarri nahian, gutxiengoaren abusuari atea zabaltzea⁴⁰. Baita ere ahaztu gabe banatze eskubideak desinbertsio eta deskapitalizazio arriskua dakarrela, eta zer nolako arriskua izan dezakeen egungo krisi egoeran sozietateen bideragarritasun ekonomikorako eta hirugarrenekin sinatuta dituzten finantziario kontratuekiko.

Halako erreakzioaren aurrean, 2012an⁴¹ 2014ko abenduaren 31 arte xedapena etenda geratu zen, eta 2014an⁴² berriz ere eten zen bere aplikazioa 2016ko abenduaren 31 arte. Hala, araua hamar hilabetez egon zen indarrean, eta ordutik bost urte daramatza etenda. Badirudi legegilearen aukera izan dela xedapen berriak sortzen dituen zalantza eta arazoei aurre egin beharrean, indarrean sartzea atzeratzea⁴³. Ikusteko dago beraz, urte honen amaiera iritsita zer erabakiko duen legegileak. Bestalde, agerikoa da ez dela inolaz ere teknika legegile egokia halako eskubide baten aitortza urteetan kolokan uztea. Doktrinaren esanei jaramon eginda uste bada lehenengo erredakzio honek ez diola den bezala erantzuten behar arazoari, eta gainera, arazo berriak ekar ditzakeela, hori konpontzea behar du izan lehentasun.

Bide honetan, **proposamenak** egin dira banatze-eskubidea aitortzerakoan kontuan hartu beharreko zenbait alderdirekin. Esaterako CIU-k 2012an egindako proposamen batetik, Campins eta Alfaro⁴⁴ honako erredakzioaren alde egiten dute: “Bosgarren ekitalditik aurrera sozietateak dibidenduak banatu beharko ditu, gutxienez irabazien heren batean, betiere interes soziala kaltetzen ez bada eta hirugarrenetik obligazioak ez betetzea ekartzen ez badu. Irabaziak banatzeak interes soziala urratzen duela ulertuko da honek eragiten dionean edo eragin diezaiokenean sozietateak bere zorrei aurre

⁴⁰ IBAÑEZ GARCIA, Isaac. (2011). *Sobre el derecho obligatorio*, ob.cit.

⁴¹ Honen bidez: Ley 1/2012, de 22 de junio, de simplificación de las obligaciones de información y documentación de fusiones y escisiones de sociedades de capital, BOE núm. 150, de 23 de junio de 2012.

⁴² Honen bidez: Real Decreto-ley 11/2014, de 5 de septiembre, de medidas urgentes en materia concursal, BOE núm. 217, de 6 de septiembre de 2014.

⁴³ MOSQUERA VALDIVIELSO. (2014). Nueva suspensión temporal de la aplicación del art 348 bis LSC (derecho al dividendo o separación). <http://www.gmvabogados.es/actualidad/nueva-suspension-temporal-de-la-aplicacion-del-articulo-348-bis-lsc-derecho-al-dividendo-o-separacion>

⁴⁴ VARGAS CAMPINS, Aurora eta ALFARO ÁGUILA-REAL, Jesús. (2014). Abuso de la mayoría, ob.cit. 25 or.

egiteko ahalmenari, zorrek mugaeguna Batzar Orokorra ospatzetik urtebeteko epean badute. Modu berean interes soziala urratzen dela ulertuko da irabaziak banatzeak sozietatearen garapen plan arrazoigarriak kaltetu ditzakeenean. Kasu hauetan, administrazio organoak emaitzen aplikazioarekin batera egoera hauek ematen direla justifikatzen duen txostena egin beharko du. Batzarrak irabaziak ez banatzea erabakitzen duen kasuan, erabakiaren aurka bozkatu duten bazkideek sozietatetik banatzeko eskubidea izango dute”.

Era honetan, beraz, jokoan dauden interes guztiei erantzutea posible izango litzateke. Azken batean, nahiz eta doktrinarekin bat etorritz, agian egungo banatze-eskubidearen formulazioa ez den guztiz zuzena, beharrezko aitortza bat da. Osterantzean, ikusi dugunez eskubide-abusuaren bidetik ez dutelako lortzen gehiengoaren zapalkuntzari amaiera ematea. Noski, horretarako beharrezkoa da ordea, xedapena behingoz aplikazioan jartzea, eta agerikoa den bezala aldaketak izan behar baditu, horiek egitea, denbora aurrera joaten utzi gabe.

Azken batean, abusuari amaiera jartzea delako xedea eta egungo egoera konkretuan bazkideek dituzten aukerak ez direlako eraginkorrak. Batetik, eskubide abusuaren instituzioa aplikatuta ez delako lortzen irabazien banaketa efektiboa, eta bestetik, halako egoera tamalgarrian egonda ere ez dutelako aitortua banatzeko eskubidea, preso egonez inolako onurarik ekartzen ez dieten sozietate batean.

1.2. Estatutu aldaketak eta kapital-eragiketak

Sozietate Zuzenbideak Batzar Orokorri aitortzen dizkion eskumenen artean daude estatutuen aldaketari dagozkionak (KSL 285 art.). Materiaren ikuspuntu klasiko batetik, estatutuen aldaketak baditu zenbait berme formal (KSL 285-290 art.). Bestetik, bazkideen babeserako zenbait arau berezi aurreikusten dira (KSL 291-294 art.). Hala eta guztiz ere, errealitate sozialak erakusten du gutxiengoa duten bazkideak babesteko ez direla nahikoa *per se* ez posizioa hobetzeko negoziazio gaitasunak, ez merkatuen indarra, ez eta administrazio organoaren bitartekaritza⁴⁵.

Modu honetan, zenbait estatutu aldaketen aurrean, eskubide-abusuaren doktrina aplikagarri izan daiteke. Besteak beste, honako kasuetan: egoitza sozialaren leku

⁴⁵ HERNANDO CEBRIÁ, Luis. (2013). *El abuso de la posición*, ob.cit. 114 or.

aldaketa diskrezionala, gutxiengoak bere eskubideak egikaritzea zailtzeko helburuarekin; partizipazioen transmisio erregimenean aldaketak; edota, sozietatearen organo kolegiatuek erabakiak hartzerakoan mugapenak ezartzea, hala nola, Batzar Orokorra bertaratzeko edo ordezkatuak izateko legitimazioaren akreditazioa.

Kasu adierazgarria izan daiteke, esaterako, merkatuan ospea duen izen sozial bat berri batengatik ordezkatzeko, eta jarraian baztertutako izena sozietatea kontrolatzen duten zenbait bazkidek eurek zuten beste sozietate bati ezartzea. Kasu honetan, esaterako, Auzitegi Gorenak⁴⁶ argi esan zuen, abusuzko portaera suposatzen duela halako estatutu aldaketak.

Bestalde, halako kasu argietatik haratago, arazo gehiago sortzen dira estatutu aldaketak **kapital eragiketen** ingurukoak direnean. Gehiengoa duten bazkideak kapital gehikuntzaz baliatzen dira parte hartze portzentajeak aldatzeko helburuarekin. Aldiz, Auzitegi Gorenak⁴⁷ argi utzi du ez dela bere horretan eskubide-abusua debekatzen duen doktrinaren aurkakoa akzio edo partizipazio berriak ez eskuratzeagatik bazkideek euren parte hartze gutxiagotua ikustea, harpidetzeko lehentasuna tarteko norberaren ahalmen ekonomikoa izan daitekeelako muga bakarra.

Hala eta guztiz ere, kapital gehikuntzak ez badio erantzuten finantziazio behar bati, bazkideen arteko desadostasuna eskubide-abusuaren teoriara jota konpondu beharko da. Hala, doktrinak⁴⁸ argitzen digu zenbait baldintza ematen direnean, gehiengoaren abusu portaeren aurrean aurkituko garela. Esaterako, frogatzen bada gehiengoa duten bazkideen helburua dela gutxiengoaren posizioa ahultzea, beharrezkoa ez den eta gainera gutxiengoarentzat aurre egiteko ezinezkoa den kapital gehikuntza baten bidez; edota, jaulkipen prima desproporzionatuak ezartzen badira. Are eta gehiago, aztertu beharko da ea kapital eragiketak gutxiengoari eragiten dion bere eskubideak egikaritzeko orduan, kontuan hartuz, zenbait eskubide egikaritzeko parte hartze minimo bat eskatzen dela, kapitalaren ehuneko bostekoa kasuen gehiengoan (KSL 168, 272.3, 268.2, 251, 265, 203.1 art.).

⁴⁶ AGE 1968-02-16 (RJ 1991\1512)

⁴⁷ AGE 2002-12 -27 (RJ 2002\8252)

⁴⁸ GINÉS CASTELLET, Nuria. (2013). Impugnación de acuerdos sociales, ob.cit. 280 or.

Kapital-murrizketen kasuan, berriz, aipamen berezia merezi du “akordeoi eragiketak”, hots, kapitala zerora edo zenbateko minimotik behera murriztea eta aldi bereko kapital gehikuntzak (KSL 343-345 art.). Izan ere, kasu hauetan arriskua areagotzen da gutxiengoa duten bazkideei ez zilegia eta abusuzkoa den kaltea sortzeko⁴⁹.

Bide honetan, Auzitegi Gorenak sarritan adierazi izan du halako eragiketen arriskua, eta zenbait egoeretan gutxiengoa kanporatzeko duten gaitasuna. Aipatzekoa da, esaterako 2000ko irailaren 16ko epaia⁵⁰. Kasu hartan halako eragiketa batzarreko eguneko gai-zerrendan zehazgabetasun handiz txertatzea aurkatzen zen. Deialdian ez zen argitasunez jasotzen kapital murrizketarekin lortu nahi zena kapital sozial osoaren amortizazioa zela, eta ondorioz, akzio zaharren titularrek euren posizioa mantenduko bazuten akzio berriak harpidetu behar zituztela. Akordeoi eragiketa, azken baten, bazkidea kanporatzeko modua zela deklaratu zuen Auzitegiak kasu hartan⁵¹.

Azkenik aipatu, abusu izaeraren indizio izan ohi direla arrazoiketa objektibo eta materialik ez izatea eragiketek (esaterako, galeren ondorioz kapitala eta ondarea orekatu nahi izatea). Ondorioz, frogatzen bada eragiketa hauen helburua gutxiengoari kalte bat eragitea zela, eskubide-abusuaren doktrinara jotzea izango litzateke bidea.

1.3. Deialdia.

Kasu honetan, bazkideak Batzarrera bertaratzea ekiditeko, deialdia egiteko modua aldatzea izaten da aukeratzen den bidea. Esaterako, komunikazio pertsonaleko sistema batetik sistema publiko batera igarotzea, tartean inolako arrazoirik izan gabe.

Batzar Orokorrerako deia egiteko irizpide orokor nagusia (KSL173 art.) sozietatearen web-orrian iragarki bat argitaratzea da, eta halakorik ezean, Merkataritza Erregistroko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta sozietatearen helbide soziala dagoen probintziako zirkulaziorik handieneko egunkari batean. Bestalde, berezitasun bezala jasotzen da (KSL173.2 art) estatutuek xeda dezaketela banakako eta idatzizko edozein komunikazio-prozeduraren bidez egin daitekeela deialdia, baldin eta prozedura horrek

⁴⁹ GINÉS CASTELLET, Nuria. (2013). Impugnación de acuerdos sociales, ob.cit. 281 or.

⁵⁰ AGE 2000-09-16 (RJ 2000\7628)

⁵¹ Zentzu berean agertu da baita: ENZNE 1991-05-9 (RJ 1991\4003)

bermatzen badu bazkide guztiek jasoko dutela iragarkia horretarako izendatutako helbidean edo sozietateko agirietan ageri denean.

Hala eta guztiz ere, deialdia egiteko modu ezberdin hauek aurreikusteak ez du ekarri behar gehiengoa duen bazkideak, administratzailearekiko duen eraginaz baliatuta, ordura arteko komunikazio sistema aldatzea. Azken batean, nahiz eta deialdia egiteko legezko bide bat erabili, helburua bazkidearen ezjakintasuna lortzea delako, batzarrera bertaratzea ekiditeko eta bazkide gisa dituen eskubideak ez egikaritzeko.

2. Gutxiengoaren abusua

Hizpide izan ditugun gehiengoaren abusu kasuek jatorria dute kapitalezko sozietateetan boterea banatzeko erabiltzen den gehiengoaren printzipioan. Bestetik, parez pare ematen dira kasuak non gutxiengoa den portaera extrasozialak burutzen dituen, kontratuaren kausatik haratago doan interes partikular bat jarraituz. Boterea banatzeko sistemak, berriz, oreka bat bilatu nahi du kontuan hartuz euren interesak betetzeko nahikoa kuota ez duten jabeak eta batik bat gutxiengoa duten bazkide hauek boterea dutenetatik babestuz.

Izan ere, gehiengoaren printzipioak indarrean dirauen bitartean beharrezkoa da gutxiengoaren babesak, eta bi printzipio hauek interes sozialaren argitan ulertu behar dira. Bestalde, gutxiengoaren babesaren bidez oreka hori bilatu nahi izateak arrisku bat dakar: gutxiengoa duten bazkideak legegilearen ardura horretaz aprobetxatu eta euren posizio juridikoaz baliatzea sozietatearen kalterako⁵².

Arriskua bazkideei indibidualki eskubideak aitortze hutsak dakar, baina are eta handiagoa da gutxiengo kualifikatu bati aitortzen zaizkionean. Modu honetan, abusua eman daiteke zentzu hertsian gutxiengoaren eskubideak egikaritzean (kapitalean ehuneko jakin batzuk izatearen funtzioan), edota zentzu zabalean (bazkideak bere eskubide indibidualak egikaritzean, kapitalean zenbateko ehuneko ordezkatzen duten

⁵² LÓPEZ MEGÍAS, Javier. (2013). Abuso de mayoría y de minoría en las sociedades de capital cerradas. *Revista de derecho bancario y bursátil*, 132, 7-50. 26 or.

kontuan izan gabe). Hala, praktikak erakusten du zentzu hertsian gutxiengoaren eskubideak direla abusuz gehiago egikaritzen direnak⁵³.

Praktika horien artean nabarmentzen dira bazkideen portaera oztopatzaileak, kontrol-eskubideei lotutako portaerak, eta ekimen-eskubideei lotuak.

2.1. Portaera oztopatzaileak

Gutxiengoaren abusuzko portaera ohikoenen artean dago sozietatearen ohiko bizia oztopatzea. Horretarako, biderik ohikoena kontrako botoa erabiltzea izaten da gehiengoak hartu nahi izaten duen erabakiak hartzea blokeatuz. Egia da, gutxiengoak izateak gutxirako balioko lukeela gehiengoarekiko diskrepantzia erakusteko balioko ez balu, baina aldi berean, ezingo da gutxiengoak duen bazkidea blokeo botere honetaz baliatu modu desproporzionatu eta justifikatu gabean⁵⁴.

Bi eskubideri eragiten die nagusiki abusuzko portaera hauek: Batzar Orokorrera bertaratzeko eskubideari eta boto eskubideari. Batetik, batzarra ezin osatzea quorum indartua eskatzen denean hau eratzeko; eta bestetik, bai abstentzio, boto zuri edo kontrako botoagatik gehiengo kualifikatua galdatzen duen akordioak ez onartzea. Orokorrean, Batzar Orokorraren eskumeneko gaien inguruko akordioak izaten dira, sozietatearen antolaketa juridiko eta ekonomikoan aldaketa handiak eragiten dituztenak. Esaterako, estatutu aldaketak –bereziki kapital eragiketak-, eta egitura aldaketak.

Gehiengoei buruzko arauak tarteko (KSL 198-201art.), eragotzi egiten da erabaki mota gehienetan gutxiengoak erabakiak hartzea oztopatzea. Bestalde, erantzukizun mugatuko sozietateen kasuan, KSLren 119.b) artikuluan gehiengo indartua eskatzen da, partizipazioen heren bat alde, garrantzia berezia duten zenbait erabakiren kasuan (egitura aldaketak, bazkideen baztertzea, harpidetza-lehentasuna mugatu edo ezabatzea...). Kasu hauetan, heren bateko parte hartzea baino handiago duen bazkide minoritarioak mota honetako erabakiak oztopatzeko ahalmena izango du. Hala, kontrako botoa, edo besterik gabe batzarrerara ez bertaratze hutsa nahikoa izango dira,

⁵³ RUBIO VICENTE, Pedro José. (2003). Una aproximación al abuso de minoría en la Sociedad Anónima. *Revista de Derecho de Sociedades*, 21, 81-108. 85 or.

⁵⁴ PULGAR EZQUERRA, Juana. (2013). Reestructuración de Sociedades de Capital y Abuso de Minoría. *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 129, 7-34. 14 or.

erabakia ez dadin hartu. Honi gainera, estatutuetan gehiengo hauek indartzeko aukera gehitu behar zaio.

Gauzak horrela, kasu konkretuko baldintzak aztertu beharko dira, ikusteko ea benetan kontrako iritzia agertu eta kontrol negatiboa egikaritzearen barruan kokatzen den bazkidearen portaera, eta ondorioz ordenamendu juridikoaren babesa merezi duen, edota botere horren abusuzko egikaritzaren aurrean aurkitzen garen.

2.2. Abusua kontrol-eskubideen egikaritzan:

Aurrez esan bezala, zentzu hertsian gutxiengoaren eskubideak egikaritzean ematen dira abusuzko portaera gehien, eta hauen baitan, kontrol-eskubideak ditugu. Eskubide hauek aitortuz, gutxiengoari zenbait instrumentu eskaini nahi zaizkio, judizialak nahiz ez-judizialak, sozietatearen bizia modu aktiboago batean kontrolatu ahal izateko. Besteak beste, hauen artean aurkitzen dira informazio-eskubidea eta erabakien aurkapena.

Informazio-eskubidea

Cebriák⁵⁵ azaltzen duenez, informazio-eskubidea aitortzeko erabilitako teknika legegileak eskubide-abusuaren doktrina aplikatzeko eremua zabaltzen du. Informazio-eskubideak izaera instrumentala du boto eskubiderako, eta modu honetan, bazkideek eguneko gai zerrendako gaien inguruko edozein txosten edo azalpen eskatzeko eskubidea dute. Gisa honetan, Auzitegi Gorenak definitzen du *bazkide izaerari atxikitako oinarritzko eskubide*⁵⁶, *kudeaketa sozialaren kontrolerako benetako instrumentu eta deliberazio eskubiderako osagarri eraginkor*⁵⁷, eta *bazkideak duen izaera konstituzionaleko eskubide ukaezin*⁵⁸ bezala.

Bestalde, eskubidea ukatzeko aukera aitortzen zaio administrazio organoari kontsideratzen duenean honek interes soziala urratuko duela. Hortaz, beste behin ere interes soziala dugu interpretazio objektu. Hala eta guztiz ere, muga absolutu bezala

⁵⁵ HERNANDO CEBRIÁ, Luis. (2013). *El abuso de la posición*, ob.cit. 186 or.

⁵⁶ AGE 2002-05-22 (RJ 2002\14760)

⁵⁷ AGE 2004-07-29 (RJ 2003\146424).

⁵⁸ AGE 2001-09-26. (RJ 2001\29047).

jarduten du eskubideak, informazioa kapitalaren ehuneko hogeita bosta ordeztzen duten bazkideek eskatzen dutenean. Bestalde, esan beharra dago doktrinaren zati zabal batek kritikatu duela salbuespenaren salbuespen hau, ulertuz jokoan dauden arazoekin ez datorrela bat⁵⁹.

Azken batean, informazio-eskubideak sor ditzakeen arazoez hitz egitean, informazio eskaera arrazoitu gabe eta desproporzionatuz ari gara. Informazio eskaera hauekin, sozietatearen ohiko jarduna oztopatzea izaten da helburu, edota ezezkoa jasota erabakia aurkatzea. Ez da erraza, baina zehazten non dagoen muga. Izan ere, KSLren 196 eta 197 artikuluetan “beharrezkotzat jo” eta “komenigarri kontsideratu” adierak erabiltzen dira, bazkideek eska dezaketen informazioari erreferentzia egiteko. Egoera honetan, beraz, administrazioaileak tentsio egoeran aurkitzen dira interes soziala babestearen eta bazkideek komenigarri kontsideratuta eskatutako informazioa ematearen artean⁶⁰. Halako egoeren aurrean, Cebriák⁶¹ proposatzen du interes soziala lehenetsi beharko litzakeela legez. Hain zuzen, bazkideek sozietatearekin lehian diharduten entitate edo bazkideekin interesak dituztenean, eta eskatutako informazioa boto eskubidea egikaritu ahal izateko hertsiki behar-beharrezkoa baino gehiago denean. Bestalde, argi dago, kasu honetan ere jurisprudentziara jo behar dugula interes sozial hori non marrazten den jakiteko, eta ezagutzeko zein portaera kontsideratzen diren abusuzko. Hala, nagusiki hiru taldetan bil daitezke abusuzko informazio eskaerak.

Batetik, abusuzkoa izango da informazio eskaera bazkideak bestelako edozein bidetatik baduenean eskatutako informazioaren berri. “Anrich European, S.L.” kasuan baieztatu zuen Auzitegi Gorenak⁶² jarrera hau. Kasu hartan demandatzaileak sozietatearen egoera ekonomiko eta kontablearen ezagutza osoa zuen, sozietatearen aholkulari fiskala zen heinean, eta ondorioz abusuzkoa eta fede onaren aurkakoa kontsideratu zen aktorearen pretentsioa.

⁵⁹ HERNANDO CEBRIÁ, Luis. (2013). *El abuso de la posición*, ob.cit. 187 or.

⁶⁰ POLO SANCEHZ, Eduardo. (1995). Abuso o tiranía. Reflexiones sobre la dialéctica entre mayoría y minoría en la sociedad anónima. *Revista Jurídica del Notariado*, 14, 51-90. 63 or.

⁶¹ HERNANDO CEBRIÁ, Luis. (2013). *El abuso de la posición*, ob.cit. 188 or.

⁶² AGE 2010-03-16 (RJ 2010\3793)

Bigarrenik, abusuzkoa da informazio-eskubideaz baliatzea blokeo egoera eman dadin eta erabakia aurkatzeko. Izan ere, eskubidea ezin da erabili sozietatearen jarduera oztopatzeko eta gehiengoaren interesen ginetik partikularrak gailentzeko, informazio eskaerak ez dionean erantzuten egiazko eta erreala den behar bati⁶³. Hala, Auzitegi Gorenak gogoratzen digu informazio-eskubidea gehiengoaren zapalkuntzak ekiditeko dagoela, baina ez sozietatearen jarduna oztopatzeko⁶⁴ edo enpresa-jarduera geldiarazteko⁶⁵.

Hirugarrenik, informazio eskaera lehia egiteko baliatzen duten bazkideen kasua dugu. Halakoetan interes gatazka sortzen da sozietatearen eta lehia egiteko informazioa lortu nahi duen bazkidearen artean. “Productos Churruca” kasuan⁶⁶, esaterako, legezkoa kontsideratu zen bazkideetako bati informazioa ukatzea, kasu hartan bazkide hark lehia desleialeko praktikak burutzen zituelako, eta informazioaz baliatu nahi zuelako sozietatearen kaltetan.

Akordioak aurkatzeta

Aurreko atalean aipatu dugun moduan, gutxiengoak bere kontrol-eskubideak abusuz egikaritzeko moduetako bat da akordioen aurkapenaren bidez gauzatzen duena. Azken batean, informazio eskubidearen ildo berean, sozietatearen ohiko jarduna oztopatzea izaten dute helburu portaera hauek, edota erabakiak aurkatzearen mehatxupearan abantaila ekonomikoren bat lortzea⁶⁷. Honen aurrean, aurkapen sistemaren erreforma bat eskatzen zen, gutxiengoaren abusu portaerei muga jartzeko. Besteak beste Conthe Informeak gobernuari hala gomendatzen zion bere bosgarren gomendioan, akordioak behar ez bezala eta gehiegi eta abusuz aurkatu ez daitezten.

Hala, 31/2014 Legeak⁶⁸ **erreforma** sakonak ekarri ditu arlo honetan, eta badirudi hauen helburua, hain zuzen, gutxiengoaren abusuari amaiera jartzea dela⁶⁹. Batetik,

⁶³ AGE 2006-09-20 (EDJ 2006/265925)

⁶⁴ AGE 2011-07-19 (EDJ 2002/15328)

⁶⁵ AGE 2003-05-08 (EDJ 2003/17122)

⁶⁶ AGE 2003-12-12 (EDJ 2003/186200)

⁶⁷ RUBIO VICENTE, Pedro José. (2003). Una aproximación al abuso, ob. cit. 93 or.

⁶⁸ Ley 31/2014, de 3 de diciembre, por la que se modifica la Ley de Sociedades de Capital para la mejora del gobierno corporativo, BOE núm. 293 de 4 de diciembre de 2014.

erabakiak aurkatzeko arrazoen katalogoa murriztu da, eta bestetik, legitimazioari dagozkion aldaketak sartu dira. Hala, orain ez dira aurkatzeko nahikoa arrazoi izango honakoak: prozedurazko baldintza hutsak urratu izana; batzarraren aurretik bazkideei emandako informazioa okerra edo nahikoa ez izatea, informazioa ez denean funtsezkoa boto eskubidea egikaritzeko; eta, boto bat edo gehiagoren baliorik eza edota okerreko zenbaketa, honek erabakia hartzeko gehiengo nahikoari eragiten ez dionean. Legitimazioari dagokionez ere, aldaketa esanguratsuak eman dira. Izan ere, Batzarraren erabakiak aurkatzeko dituzten bazkideek kapitalaren ehuneko bata ordezkatu beharko dute gutxienez, eta sozietate anonimoen kasuan milako bat. Administrazio organoaren erabakiak aurkatzeko legitimazioa berdin mantentzen da, eta bazkideen kasuan, babesa areagotzen da parte hartzea ehuneko bostetik ehuneko batera murriztean.

Badirudi, neurri hauen helburua izan dela gutxiengoak aurkapenaren bidez abusuz jarduteari amaiera jartzea. Ondorioz, ikusteko dago ea errealitatean zenbaterako eragina izango duten neurriok. Azken batean, aurkapen eskubidearen helburua bazkideei gehiengoaren erabakien aurrean zaintza ahalmen bat ematea delako, baina ez honetaz baliatzea, besteak beste, akzioak ez tarteratzeko mehatxupearan konpentsazio ekonomiko bat lortzeko. Azkenik, doktrinak⁷⁰ abusuzko portaera hauei amaiera jartzeko beste neurri posible bat ere aurkezten digu: arau prozesal bat txertatzea demandaren onarpenerako tramite batekin, epaileak ahalmena izan dezan eskubide-abusua suposatzen dutenak baztertzeko.

2.3. Abusua ekimen-eskubideen egikaritzan

Azkenik, gutxiengodunei aitortzen zaizkien ekimen-eskubideak ditugu. Hauek ahalbidetzen dute gutxiengoak gehiengoaren kontrapisu gisa jardutea, eta boterearen guztizko izaera ekidinez.

⁶⁹ QUIJANO GONZÁLEZ, Jesús. (2015). La reforma del régimen de acciones de impugnación del acuerdo social
<file:///C:/Users/Usuario/Downloads/150213%20EL%20ECONOMISTA%20La%20reforma%20del%20r%C3%A9gimen%20de%20acciones%20de%20impugnaci%C3%B3n%20del%20acuerdo%20social.pdf>

⁷⁰ HERNANDO CEBRIÁ, Luis. (2013). *El abuso de la posición*, ob.cit. 198 or.

Batzar orokorraren deialdia

Aurrez ikusi dugu gehiengoak deialdirako bidea aldatzea erabiltzen duela abusuz jarduteko modu bezala. Bestalde, balantzaren beste aldean aurkitzen dugu deialdia egiteko eskaera gutxiengoak abusuz jarduteko ere erabil dezakeela. Izan ere, KSLren 168 artikuluan jasotzen da kapitalaren ehuneko bosta ordeztan duten bazkideek administratzaileei deialdia egiteko eskatuz gero, hauek deialdia egin beharko dutela. Hala egin ezean, bi hilabeteko epean, epaileak egingo du deialdia, aurretiaz administratzaileekin audientzia izanda (KSL 169.2 art.).

Modu honetan, gerta daiteke gutxiengoa duten bazkideek, gehiengoak batzarrerara agertzeko ezintasuna duela jakinda, sorpresaz batzarra ospatzea, bere botoekin erabakia hartu ahal izateko, jakinik bestela bere erabakia ez dela onartuko edo dagoeneko gaia eztabaidatua izan eta ez onartua. Egia da, neurri batean ordezkapen sistemak halako egoerak ekiditea duela helburu.

Bestetik, erantzukizun mugatuko sozietateen kasuan, baliozkoak diren erabakiak hartzeko, berauetan kapitalaren heren bat ordezkatua egotea eskatzen da (KSL 198 art.). Zenbait kasutan, mekanismo honen bidez, gutxiengoa duen bazkideak, sozietatearen bizirako garrantzitsuak diren erabakiak har ditzake, urteko kontuen onarpen eta emaitzaren aplikazioa, kudeaketa sozialaren zentsura eta administratzaile berrien izendapen eta kargugabetzea, esaterako. Kasu guzti hauetan, aurretiazko audientzian administratzaileek aukera izango dute interes gatazka edo bazkideak eskubidearen abusuzko jardura bat egikaritzen ari direla argudiatzeko. Azaldu ahalko dute zein den deialdia egin nahi ez izatearen arrazoa, hau ilogikoa edo arrazoitu gabea denean, edota objektua ez zilegi edo ezinezkoa denean. Kasu honetan ere, helburua, orain artekoen berdina izango da: modu sistematikoz sozietatearen ohiko jarduna oztopatzea. Era honetan, epaileari deialdia egiteko eskaera, sozietatearen bizitza oztopatzeko moduen artean kokatzen da. Bereziki erantzukizun mugatuko sozietateetan ematen da, eta kasu hauetan administratzaileak euren jardute ahalmena uneoro mugatua ikusten dute, gutxiengoaren esku hartze etengabea tarteko.

Laburbilduz, esan dezakegu azken batean aztertu behar dena dela gutxiengoak jarraitzen duen interesa zein den; hots, ea interes extrasozial bat tarteko egikaritzen duen

delako eskubidea eta arrazoizkoa ez den norberekoikeria ematen den⁷¹. Legeak aipatu ditugun eskubideak aitortzen ditu, bai indibidualak izan edo gutxiengo kualifikatuarenak, bazkideek euren arrazoizko interesa babes dezaten, interes sozialaren euren perspektiba, baina inola ere ez arrazoizkoa ez den interes bat. Azken batean, bazkidearen eskubideen egikaritzak diskrezionaltasun eremu bat du, baina betiere interes sozialarekin bateragarriak diren jarrerak izanik. Hala, eskubide-abusuan egikaritu direla kontsideratuko da diskrezionalitate eremutik haratago bestelako interes propioak jarraitzen direnean. Kasu hauetan ere, epailea izango da interes gatazka konpontzera deitua izango dena; baina, gehiengoaren abusu kasuetan bezalaxe, bere egitekoa ez da izango sozietatearen jardunean esku hartu eta interes sozialaren edukia zein den zehaztea. Baizik eta baloratzea, ea gutxiengoa duen bazkidearen portaera extrasoziala den eta fideltasun betebeharrak gainditu dituen bere eskubideen egikaritzan.

III. ESKUBIDE-ABUSUAREN DOKTRINAREN APLIKAZIOA

Orain arte aipatutakoa kontuan hartuz, esan daiteke gehiengoaren eta gutxiengoaren abusu, txanpon beraren bi aurpegiak direla. Bien faktore komuna da bazkideek portaera extrasozial bat burutzen dutela, bai gehiengoaren bai gutxiengoaren posiziotik, eta modu honetan interes soziala kaltetzen dutela. Megiasen iritziz⁷² gatazka hauetara Espainiar ordenamenduan ematen zaion erantzuna ez da behar bezalakoa. Izan ere, ez dago arauketa espezifikoa bat eta jurisprudentiako doktrina ez da homogeneotasunez azaltzen. Modu honetan, eskubide-abusuaren teknika orokorrera jotzen da, alegatuz aitortutako eskubide baten muga arruntak gainditu direla. Bestalde, ohikotasunez sozietate itxietan agertzen diren egoerei aurre egiteko nahikoa ez dela aipatzen da, bere espezialitate faltagatik. Hala eta guztiz ere, egun hauxe da arazoari ematen zaion erantzuna, eta ondorioz, aurrez aztertutako edozein kasutan eskubide-abusuaren doktrina aplikatzeko baldintzak zein diren aztertzea izango dugu helburu atal honetan.

Eskubide-abusuaren instituzioa orain artean Kode Zibilaren 7.2 artikuluan jasotzen zen. Bertan esaten da legeak ez duela babesten eskubide-abusua eta ezta

⁷¹ LÓPEZ MEGÍAS, Javier. (2013). Abuso de mayoría y de minoría, ob.cit. 28 or.

⁷² LÓPEZ MEGÍAS, Javier. (2013). Abuso de mayoría y de minoría, ob.cit. 29 or.

eskubideak gizartearen aurka egikaritzea, eta egite edo ez egite orok, egilearen asmoarengatik, egite edo ez-egitearen helburuarengatik edo berori burutzeko inguruabarrengatik, begi-bistan gainditzen baditu eskubidea egikaritzeko muga arruntak, hirugarrenari kalte eginez, orduan, kalte-ordain egokia eman beharra dakarrela, eta abusua jarraitzea eragotziko duten administrazio- neurriak nahiz neurri judizialak hartu beharko direla.

Sozietate Zuzenbidean, Kode Zibilean jasotako instituzio orokor honetara jo izan da abusuei amaiera jartzeko, eta artikulua aplikatu sozietate eremuko gatazka konpontzeko. Bestalde, 31/2014 Legeak⁷³ Kapital Sozietateen Legearen 204. artikulua aldatu ekarri du, eta honek zuzenean eragin dio hizpide dugun instituzioari. Artikulu berri honetan jasotzen da zein diren aurkagarriak diren akordioak: legearen, estatutuen eta sozietateko batzarraren erregelamenduen aurkakoak eta, interes soziala urratzen dutenak bazkide bat edo batzuen edo hirugarrenen onuran. Bestalde, interes sozialaren urraketa noiz ematen den gehitzen duenean dator berrikuntza. Esaten baita, nahiz eta erabaki batek ondare sozialari kalterik ez eragin, gehiengoak abusuz inposatzen duenean, interes soziala urratzen dela. Honi gehitzen dio, egoera hau emango dela, sozietatearen arrazoizko behar bati erantzun gabe, gehiengoak interes propioan jarduten duenean eta gainerako bazkideen kalte justifikatu gabean⁷⁴.

Laburtuz, xedapen berriak esaten digu interes soziala urratzen dela kontsideratuko dela gehiengoaren abusuzko portaeretan. Badirudi, beraz, gehiengoaren abusuzko portaerei Kapital Sozietateen Legean erantzuna eman nahi izan zaiela, baina benetan zalantzan jartzekoa da ea zer ekarpen berri egiten duen. Carrasco Perera⁷⁵, hala arrazoitzen du, esanez, Kode Zibileko 7.2 artikulua inolako zalantzarik gabe indarrean

⁷³ Ley 31/2014, de 3 de diciembre, por la que se modifica la Ley de Sociedades de Capital para la mejora del gobierno corporativo, BOE núm. 293 de 4 de diciembre de 2014.

⁷⁴ KSL 204.1.II: “La lesión del interés social se produce también cuando el acuerdo, aun no causando daño al patrimonio social, se impone de manera abusiva por la mayoría. Se entiende que el acuerdo se impone de forma abusiva cuando, sin responder a una necesidad razonable de la sociedad, se adopta por la mayoría en interés propio y en detrimento injustificado de los demás socios”.

⁷⁵ CARRASCO PERERA, Angel. (2014). Abuso de derecho de la mayoría, conflictos de intereses y lesión del derecho de información en el Proyecto de Reforma LSC. <http://www.gomezacebo-pombo.com/media/k2/attachments/abuso-de-derecho-de-la-mayoria-conflictos-de-intereses-y-lesion-del-derecho-de-informacion-en-el-proyecto-de-reforma-lsc.pdf>

dagoela zuzenbideko alor guztietan eta auzitegiek inolako zailtasunik gabe aplikatzen dutela sozietate eremuko gatazketan. Are gehiago, autoreak nabarmentzen du ohiko eskubide-abusu kasuetatik haratago aplikatzeko pizgarri arriskutsu bezala jardun dezakeela. Gainera, azpimarratzen du “arrazoizko behar” eta “kalte justifikatu gabe”⁷⁶ bezalako kontzeptuak erabiltzeak ez duela egiten inolako mesederik.

Esan daiteke, beraz, xedapenak ez duela irtenbide berri bat eman, epailearen eskutan instrumentu gehiago jarri, edota eskubide eta obligazio berriak ezarri. Jurisprudentiaren eta doktrinaren lanketaren bidez oinarri sendoak dituen instituzio bat aipatzera besterik ez dator xedapena, Kapitalezko Sozietateen Legean bere aitortpena izan dezan. Baina artikulua ez ditu jasotzen zein diren, eskubide-abusuaren doktrina aplikatu ahal izateko baldintzak eta aplikatzearen kasuan zein diren har daitezkeen neurriak. Ondorioz, lehengo egoeraren antzekoan aurkitzen garelako ondorioztatuta Kode Zibilerako jo beharko dugu instituzioaren aplikazioa aztertu ahal izateko.

Eskubide-abusuaren doktrina aplikatzerakoan kontuan izan behar dugun lehen puntua da honek **salbuespenezko izaera**⁷⁷ duela. Abiapuntua da, arau orokor bezala, eskubide batek emandako ahalmenak baliatzen dituenak ez duela abusuz jarduten. Horregatik, Auzitegi Gorenak⁷⁸ gogoratzen digu salbuespenezko izaera duen erremedioa den heinean, zuhur erabili beharrekoa dela eta interpretazio murriztailea egin, ageri eta nabaria den kasuetan joz bere aplikaziora.

Ondorioz, 7.2 artikulua aplikazioa inbokatzen duenak, zenbait baldintza konkretu ematen direla egiaztatu beharko du. Hain zuzen, bi funtsezko baldintza: legezkoa dirudien eskubidearen egikaritzea, baina mugak nabarmen gainditzen dituenak; eta bereziki babestua ez den interes baten kaltea.

⁷⁶ Jatorrizkoan, “*necesidad razonable*” eta “*detrimento injustificado*”.

⁷⁷ SENENT MARTINEZ, Santiago. (2013). Abuso de minoría y ejecución judicial de acuerdos sociales no adoptados o rechazados. *EPrints Complutense*, 78, 13-31, 23 or.

⁷⁸ AGE 1992/02/20 (RJ 1992\1418); AGE 1980-07-7 (RJ 1980\3301)

1. Baldintzak

1.1. Objektiboki legezkoa dirudien eskubidearen egikaritzea, baina mugak nabarmen gainditzen dituena.

Aplikaziorako lehen baldintza eskubide subjektibo bat egikaritzea da, *a priori* zuzenbide objektiboko arauen mugak errespetatuz, baina ordenamendu juridikoan garrantzitsuak kontsideratzen diren beste muga batzuk nabarmen gaindituz. Hala, portaera abusuzkoa egiten duten ezaugarriak dira, eskubidearen egikaritzaren xede bakarra besteen interesak kaltetzea izatea edota, gainerako interesetan sortzen den eragin negatiboaren gehiegikeria edo anormaltasuna.

- Eskubide bat egikaritzea egite edo ez egitez

KZ 7.2 artikulua jasotzen du eskubide-abusua, portaera positibo (egite) edo negatibo (ez egite) bat tarteko eman daitekeela. Doktrinak⁷⁹ kontsideratu izan du behin eskubide baten existentzia baieztatuta, bere abusuak erabilera eskatzen duela, hots, eskubide beraren egikaritzea. Hala, eskubide baten egikaritzak giza portaera baten beharra eskatzen du, eta portaera hori esan dugun bezala, positiboa nahiz negatiboa izan daiteke.

Egite batetik eskubideen abusuzko egikaritzea etor daitekeela ez du inork zalantzan jartzen. Hauen baitan kokatuko genuke, esaterako, boto eskubidea egikaritzea eta, gehiengoaren erabakiz abusuzkoa den akordio bat hartzea, esaterako. Bestalde, arazo gehiago planteatzen ditu ez egiteen bidezko abusuak. Zenbait autore, horien artean Castán Vázquez⁸⁰, ez dira portaera negatiboa denean doktrina hau aplikatzearen aldekoak. Bestalde, beste sektore baten iritzi⁸¹, jardute ezak zenbaitetan abusua sor dezake. Hain zuzen, fideltasun printzipioak jardutea eskatzen duenean. Honen aurrean,

⁷⁹ GINÉS CASTELLET, Nuria. (2013). Impugnación de acuerdos sociales, ob.cit. 292 or.

⁸⁰ CASTÁN VÁZQUEZ, José María. (1977). *El abuso del Derecho en el nuevo Título Preliminar del Código Civil*. Madrid: Edersa. 528 or.;

⁸¹ Horien artean, GETE-ALONSO, Maria del Carmen. (1992). *Comentario al art. 7 del Código Civil, Comentarios al Código Civil y Compilaciones forales* (ALBALADEJO eta DÍAZ-ALABARTEk zuzendua). Madrid: Edersa. Ed.2. 38 or.; LOPEZ LOPEZ, Angel. (2012). *Fundamentos del Derecho civil. Doctrinal generales y bases constitucionales*. Valencia: Tirant Lo Blanch. 213 or.

esan dezakegu, zenbait egoeratan eskubide batzuk ez egikaritzea, nahiz eta horretarako obligaziorik ez egon, interes sozialaren argitan, abusuzkoa izan daitekeela.

Portaera negatibo hauen adibide argia aurrez ikusi dugu, gutxiengoak blokeo egoerak sortzea. Azken batean, gutxiengoak sozietatearen bizitzan parte ez hartzean, abstentzio jarrera hartuz, blokeo eta paralisi egoerak sortzen ditu, eta ikusi dugu, zenbait egoeretan beharrezkoa dela gutxiengoa duten bazkideek ere parte hartzea, sozietatearentzat bereiziki garrantzitsuak diren erabakietarako.

- **Objektiboki legezkoa dirudien eskubidearen egikaritzea**

Eskubide-abusua eman dadin zentzu propio eta teknikoan, eskubide subjektibo baten inguruko jarduerak hertsiki legezkoa izan behar du. Ezin da, beraz, lege urrapenik eman. Hauxe da, hain zuzen, abusuaren idiosinkrasia, *prima facie* legeak ezarritako mugak errespetatzen direla. Bestalde, mugak gainditze hutsetik ezberdintzen da, portaerak duen legitimitate–legalitate itxuragatik, eta printzipioz, legearen baitan jarduten denez, beronek eskainitako babesa izango du⁸².

- **Mugak nabarmen gainditzea: muga arruntak eta abusuzko portaerak**

Puntu honetan, esan beharra dago, legalitatearen barruan burutu den ekintza bat, noiz dagoen debekatua abusuzkoa izateagatik. Muga arruntak zein diren zehazteko KZren 7.2 artikulua berak jasotzen dituen elementuetara jo behar dugu, eta hauek doktrinaren eta jurisprudentziaren ekarpenen argitan ulertu. Hala, bi modutara gainditu ahalko dira nabarmen mugak: subjektiboki edo objektiboki⁸³. Batetik, subjektuaren helburua kalte bat sortzea izaki; eta bestetik, egilearen intentzioa baztertuta, sortutako emaitza objektiboagatik.

Elementu subjektibori dagokionez, onartezina izango da eskubidearen egikaritzea, bere helburu bakarra beste bati kalte bat eragitea bada (Josseranden tesia), edota

⁸² PALOMBELLA, Gianluigi. (2006). El abuso del derecho, del poder y del rule of law. *DOXA, Cuadernos de Filosofía del Derecho*, 29, 38 or.

⁸³ GOMEZ LAPLAZA, Maria del Carmen. (2006). Abuso del Derecho. *Revista de derecho privado*, 90, 3-74. 35 or.

bestarik gabe helburu finkorik gabea edo zilegia ez dena (Saleillesen tesia)⁸⁴. Praktikan bien adibideak aurki daitezke. Hala, eskubide-abusua egon daiteke frogatzen bada gehiengoak hartutako erabakiaren helburua gutxiengoari kalte bat eragitea dela, adibidez, kapitalen gaineko eragiketetan, non gutxiengoaren posizioa ahuldu edo diluitzea den helburua; edota, kaltea sortzeko asmoa frogatu ez arren, hau ondorioztatu daitekeenean, erreserba bolumen altua izanda irabaziak banatzen ez diren kasuan, esaterako.

Bestalde, arazo gehiago sortzen ditu elementu subjektiboak gutxiengoaren abusu portaeren kasuan. Portaera oztopatzailen kasuan, kaltea sortzeko nahi hori identifikatzen da motibazio bakarra sozietatearen ohiko jarduna trakestea denean. Hala, Couret autore frantziarrak dio, gutxiengoaren kritikarako eskubideak ezin duela bilakatu kaltea sortzeko eskubide baten⁸⁵. Baina, aldi berean, gutxiengoari bere posiziotik erabakiekiko aurkakotasuna erakusteko ahalmena aitortzen zaio. Orduan, non dago aurkakotasuna erakutsi baina abusuan ez erortzearen arteko muga? Erantzun bakarra ematea ezinezkoa da, eskubide-abusuaren idiosinkrasia berak eragozten baitu. Bestalde, baztertzailak izan gabe Nuria Ginesek⁸⁶ hauek identifikatzen laguntzeko zenbait indizio edo irizpide azaltzen dizkigu, eta doktrina eta jurisprudentzia frantsesaren argitan bi irizpide kontuan izan behar direla esaten digu. Batetik, aipatu dugun interes sozialaren urratzea, eta bestetik interes propioan eta besteen kaltetan jarduteko gutxiengodunen asmoa.

Aldi berean, arrazoi objektiboengatik antisoziala kontsideratuko da eskubide baten gehiegizko edo ez ohiko erabilera egiten denean, sortutako emaitza eskubideak ematen duen botere eremutik at kokatuz. Hala, abusuzkoa izango da erabaki bat gutxiengoa bereziki kaltetzen badu, eta aldi berean, ez badio ekartzen sozietateari hauteman daitekeen onurarik. Hala gertatuko da, esaterako, fusio akordio batean, non ezartzen den kanbio-erlazioa erabakia hartzen duen sozietateko gutxiengodun

⁸⁴ CUADRADO PÉREZ, Carlos. (2014). *La moderna configuración de la doctrina del abuso del derecho*. Madrid: Thomson Reuters Aranzadi. 80or.

⁸⁵ GINÉS CASTELLET, Nuria. (2013). Impugnación de acuerdos sociales, ob.cit. 298 or.

⁸⁶ GINÉS CASTELLET, Nuria. (2013). Impugnación de acuerdos sociales, ob.cit. 299 or.

bazkideentzat kaltegarria den, eta onuragarria berriz, parte hartzen duen beste sozietateko bazkideentzat⁸⁷.

Modu honetan, beraz, Kode Zibilak abusuaren inguruko tesi subjektibista eta objektibista barneratu ditu. Hala, aipatutako edozein modutan eman ahalko da abusua, bi baldintzak, subjektiboa eta objektiboa, batera emateko beharrik gabe, ulertzen baita biak interpendenteak eta osagarriak direla⁸⁸.

1.2. Bereziki babestua ez den interes baten kaltea

Eskubide-abusuaren instituzioa aplikatzeko lehenengo baldintzaren nondik norakoak aztertuta, bereziki babestua ez den interes bati kaltea sortzea dugu bigarren elementu. Bestalde, elementu honen beharrezkotasunean ez du bat egiten doktrinak. Izan ere, sektore batek⁸⁹ uste du beharrezkoa dela bereziki babestua ez den interes bat kaltetzea. Bestetik⁹⁰, berriz, uste dute ez dela beharrezkoa efektiboki kalte bat sortzea, baizik eta honek eragina izango duela erantzukizuna eskatzerako orduan. Ideia bat eta bestearen artean, gutxienik portaera hirugarren baten interesa negatiboki kaltetzeko potentziala izatea eskatzea izan daiteke erdi bidean aurki dezakegun konponbidea.

Ildo honetan, Rocak⁹¹ uste du eskubide-abusuaren doktrinaren esferan sartzen direla bai dagoeneko interes bati kaltea eragiten dioten portaerak, baina baita ere bestelako portaera batzuk, soilik kalte bat sortzeko arriskua erakusten dutenak, baina abusuak iraun ezkerko modu ziurrean kalte bat eragingo luketenak. Badirudi proposamen honek bi iritzi kontrajarrien arteko gatazkari egoki erantzuten diola.

⁸⁷ SANCHEZ RUIZ, Mercedes. (2000). *Conflictos de Intereses entre Socios en Sociedades de Capital:(artículo 52 de la Ley 2/1995, de 23 de marzo)*. Navarra: Editorial Aranzadi. 230 or.

⁸⁸ CARRASCO PERERA, Angel. (2001). Comentario al art. 7.2, *Comentarios al código civil-en*, BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigok zuzendua, 3. Ed, Navarra: Thomson-Aranzadi. 48 or.

⁸⁹ ROCA JUAN, Juan. (1977). *Comentarios a las reformas del Código civil. El nuevo Título Preliminar del Código y la Ley de 2 de mayo de 1975.Vol I*. Madrid: Tecnos. 386 or.; GINÉS CASTELLET, Nuria. (2013). Impugnación de acuerdos sociales, ob.cit. 302 or.

⁹⁰ DIEZ PICAZO, Luis. (1974). El abuso del derecho y fraude de ley en el nuevo Título Preliminar del Código civil y el problema de sus recíprocas relaciones. *Documentación jurídica*, 1333 or; HERNANDO CEBRIÁ, Luis. (2011). Del socio de control al socio tirano y al abuso de la mayoría en las sociedades de capital. *Revista de Derecho de Sociedades*, 37, 173-205, 182 or.

⁹¹ ROCA JUAN, Juan. (1977). *Comentarios a las reformas*, ob cit. 388 or.

2. Ondorioak

Aztertutako baldintzak ematen diren kasuan, eta ondorioz abusuzko portaera baten aurrean aurkitzen garenean, eskubide-abusuaren doktrina aplikatzeak zein ondorio dakartzan aztertzea geratzen zaigu orain. KZren 7.2 artikulua esaten digu eskubide-abusua eman ezker, abusuak jarraitzea eragotziko duten administrazio-neurriak nahiz neurri judizialak hartu beharko direla, eta horrez gain, bidezkoa bada, kalte-ordainak ematea.

Beraz, epaileari jardute eremu zabala aitortzen zaio, abusuari amaiera jartzeko edozein neurri hartzeko ahalmena aitortzen zaion heinean. Era honetan, atal honetan saiatuko gara aztertzen zein diren har daitezkeen neurri horiek. Eta bereziki doktrinak egiten dituen proposamen berrietan jarriko dugu atenzioa. Izan ere, benetan interesgarri eta baliagarriak izan daitezkeen konponbideak proposatzen dituzte, xedapenaren formulazio zabal honen barruan lekua dutenak.

2.1. Abusuak jarraitzea eragotziko duten administrazio- neurriak nahiz neurri judizialak.

Eskubide bat abusuz egikaritu dela kontsideratzen denean, ekintza horri babesak kentzea izango da ordenamenduaren lehenengo erreakzioa⁹², hots, nahiz eta portaera hori eskubide subjektibo baten testuinguruan egikaritua izan, dagoeneko ez du babesik aurkituko ordenamenduan. Era honetan, ondorioa izango da portaerak sortutako efektuak bertan behera uztea, hau da, portaera edo ekintzaren efikaziari eragitea.

Bestalde, helburu hori lortzeko hartuko diren neurriak ez dira berdinak izango kasu guztietan. Bigarren atalean ohiko kasuak zein diren ikusi ditugu, eta nabarmena da bakoitzak bere ezaugarri eta bereizgarriak dituela. Beraz, ondorioak ezartzerakoan ere, portaera mota bakoitzari eman beharko diogu erantzuna.

⁹² ALCALÁ DÍAZ, María Ángeles. (1997). El conflicto de interés socio-sociedad en las sociedades de capital. *Revista de Derecho de Sociedades*, 7, 89-142, 111 or.

- **Deuseztasuna**

Lehenik eta behin, bazkideen portaera aktiboekin hasita, gehiengoaren jarrera zapaltzaileak ditugu. Halakoei amaiera jartzeko modu ohikoena erabakiak **deusezak** deklaratzeko da. Batzar Orokorraren baitan hartzen diren erabakiak abusuzkoak diren kasuetan, hauek deusez deklaratu eta ondorioz, efekturik gabe uztea izango da ondorio esanguratsuenak. Hala, esaterako, abusuzko kapital gehikuntza baten aurrean egongo bagina, zeinak helburu duen gutxiengoa duen bazkidearen parte hartzea gutxiagotzea, erabakia deuseza deklaratzeko litzateke abusuari amaiera jartzeko bide logikoa. Edota, deialdi sistema aldatzen bada bazkideak batzarraren berri izan gabe erabaki bat hartzeko, hartutako erabakia deuseza eta ondorioz efektu gabe utziz babestuko dira bazkidearen interesak.

- **Epailearen exekuzio ahalmena areagotzea**

Deuseztasuna, gehiengoaren zapalkuntza portaerei amaiera jartzeko bide nagusia da, bestalde gutxiengoaren abusu jarreretakoa hau ez zaigu baliagarria. Ikusi dugunez, gutxiengoa duten bazkideen kasuan, ohikoa da **portaera oztopatzaileak** aurrera eramatea, bai erabakiak hartzeko beraiek bertaratzea beharrezkoa denean hala ez egiten, edota boto eskubidea erabiliz, sozietatearentzat bereziki garrantzitsuak diren erabakiak hartzea eragotziz.

Gutxiengoaren helburua erabaki jakin bat hartzea oztopatzea denean, bi jarrera mota bereiz ditzakegu. Batetik, erabakiaren aurka modu espresuan agertzea kontrako botoa emanaz, edota bestetik, jakinik bere bozka nahitaezkoa dela, botorik ez ematea, eta ondorioz, jarrera pasibo bat hartzea. Ez da erraza, halako abusu egoeretan zein neurri hartu erabakitzea. Plantea daiteke judizialki zigortzea gutxiengodun bazkidea batzarrera bertaratu eta interes sozialaren alde bozka dezan, egiteko obligazio bat ezarriz. Aldiz, arrisku argi bat dago bazkideak erabakia ez betetzeko, eta ondorioz, erabakia hartzea atzeratzeko. Baina horrez gain, neurri hau boto eta bertaratze askatasun printzipioaren aurkakoa izango litzateke⁹³.

⁹³ RUBIO VICENTE, Pedro José. (2003). Una aproximación al abuso, ob. cit. 100 or.

Egokiagoa da, beraz, bazkideak **aktiboki parte hartzea eskatzen ez duten neurriak** hartzea. Jurisprudentzia frantziarrak⁹⁴, bide honetan, *ad hoc* mandatari bat izendatzearen alde egin izan du. Honek gutxiengoa duen bazkidea ordeztuko luke, eta Batzar Orokor berri bat ospatuta, sozietatearen interesen alde jardungo luke. Bestalde, Rubio Vicentek neurri honen zailtasun praktikoak aipatzen ditu. Batetik, erabakia hartzea atzeratzea Batzar Orokor berri bat konbokatzea beharrezko izango litzatekeelako. Bestetik, zalantzan jartzekoa da bazkide ez den bati bozkatzeko legitimazioa ematea, honek ez baitu ordezkari gisa jardungo, bere izen propioan baizik. Eta gainera, are eta arazotsuagoa suertatuko da gutxiengoak berariazko kontraktasuna agertzen duenean. Izan ere, kasu hauetan ez da soilik bazkidea ordezten, baizik eta mandatariak hark bozkatuaren aurka jardungo luke.

Konponbide honek aurkeztzen dituen zailtasunak ikusita, doktrinak⁹⁵ egokiagoa ikusten du **epaileak berak erabakia onartzea, exekuzioa aginduz**. Konponbide honek gure ordenamenduan lekua izango luke, izan ere, ezin dugu ahaztu KZren 7.2 artikulua abusua eragozteko edozein neurri hartzea ahalbidetzen duela. Ondorioz, justifikatu gabeko blokeo egoerari amaiera jartzeko, onartzen ez den erabakiaren exekuzio judiziala agintzea izango litzateke irtenbiderik eraginkorra. Azken batean planteamendua honakoa da: exekuziorako zer egokiagoa epaileak akordioaren onarpena sententzian bertan inposatzea baino? Zertarako jo zeharkako mekanismoetara, mandatarien izendapenera, esaterako, sententzian bertan agindu daitekeenean, beharrezkoak ez diren tramite eta denbora luzapenak ekidinez?⁹⁶

Gehiengoak abusuz jarduten duenean, botoak deuseztatu eta hauen bidez hartutako erabakia efekturik gabe uzten bada, gutxiengoaren abusu kasuetan ere ildo berari eustek logikoa dirudi, abusuz emandako botoak deuseztatuz eta sozietatearentzat beharrezko den neurria onartu eta exekutatzuz. Era honetan, beraz, **erabakiaren deuseztasuna eta onartzea eta inposizioa, txanpon beraren bi aurpegi izango lirateke, gehiengoaren eta gutxiengoaren abusuzko portaerei amaiera jartzeko**.

⁹⁴ 1993ko martxoaren 9an, *Flandin* kasuan egin zen lehen aldiz konponbide honen alde.

⁹⁵ RUBIO VICENTE, Pedro José. (2003). Una aproximación al abuso, ob. cit. 94 or; PULGAR EZQUERRA, Juana. (2013). Reestructuración de Sociedades, ob.cit. 18 or; HERNANDO CEBRIÁ, Luis. (2013). *El abuso de la posición*, ob.cit. 193 or.

⁹⁶ RUBIO VICENTE, Pedro José. (2003). Una aproximación al abuso, ob. cit. 101 or.

Konponbide honen aurrean *business judgment rule* printzipioa edota sozietatearen kudeaketa judizialaren arriskua alegatzea ukatzen ditu Rubio Vicentek⁹⁷. Izan ere, epailearen lana ez da izango interes sozialarekiko erabakia komenigarria den edo ez zehaztea; baizik eta interes soziala dagoeneko urratua izan den kasuez ari gara. Eta kasu hauetan epaileari aitortu behar zaio arazoa konpontzeko neurririk egokiena hartu eta inposatu ahal izatea, gatazkari amaiera jartzeko interes sozialaren argitan. Horretarako, gutxiengodunaren posizio juridikoa zein den aztertuko du, eta hala jarrera zapaltzaile hori behin eta berriz errepikatzea ekiditea lortuko du egokiena deritzon neurriarekin.

Azken batean, KZren 7.2 artikulua baitan epaileari onartu behar zaio blokeo portaerei aurre egiteko modua, berriz ere, interes soziala egokien babestuko duen erabakia hartzea ahalbidetuz⁹⁸. Epaileak ez du definituko interes soziala bazkideen arteko gatazka interes legitimoen artekoa denean, honi erantzuteko baitago gehiengoaren printzipioa. Bere zeregina izango da baloratzea ea bazkideen arteko gatazka horretan portaera extrasozialak burutzen diren, eta kasu horretan, abusuak irautea ekiditeko eta interes sozialaren alde jarduteko erabakirik egokiena hartzea, ziurrenik kaltetutako subjektuak eskatzen duena izango dena, bai gehiengoa duen bazkidea izan, bai gutxiengoa duena izan.

Bestalde, epaileari exekuzio botere hau aitortzea, ez dugu gutxiengoaren abusu kasuetara mugatu behar. Aurrez ikusi dugunez, irabaziak banatzen ez diren kasuan ere, deuseztasuna deklaratzetik haratago, epaileak efektiboki irabazirik jasotzen ez duen bazkidearen interesa babestu nahi badu, esku hartzea beharrezkoa izango da. Ondorioz, esan dezakegu mota askotako gatazken aurrean epaileari jarduteko ahalmena aitortzea dela hartu beharreko bidea, kalte bat jasaten ari den bazkidearen interesak benetan babes daitezzen.

- **Bazkidearen irteera edo kanporatzea**

Gerta liteke bai akordio sozialak deusez deklaratzeko eta epaileari botere zabalago bat aitortzea ez izatea nahikoa amaiera jartzeko bazkideen arteko gatazka immanente

⁹⁷ RUBIO VICENTE, Pedro José. (2003). Una aproximación al abuso, ob. cit. 102 or.

⁹⁸ SENENT MARTINEZ, Santiago. (2013). Abuso de minoría y ejecución judicial, ob. cit. 15 or.

bati. Cebriák⁹⁹ azaltzen digunez, zenbait kasutan, orain artean aipatutako konponbideak ez dira gai liskar hauetako gordiar korapiloa askatzeko. Honen aurrean, zapaldua den gutxiengodun bazkideen banatze eskubidea, eta abusuz jarduten dutenen kanporatzea aipatzen dira soluzio posible gisa. Bestalde, egungo legedian ez da banatzeko edo kanporatzeko kausa legal gisa jaso aztergai izan ditugun abusu egoerak ematea. Honen aurrean, doktrinak bai bazkidearen irteeraren eta kanporatzearen alde egin du.

Esan bezala, legedira jota mintzagai ditugun abusu egoerak ez dira banatzeko edo kanporatzeko kausa legal bezala jasotzen¹⁰⁰. Honen aurrean, hauek estatutuetan jasotzea besterik ez da geratzen, bai zapaldutako bazkideak banatzeko eskubidea izan dezan¹⁰¹ eta bazkide oztopatzailea kanporatua izan dadin¹⁰². Bestalde, kontuan hartzekoak dira halako aurreikuspenak jasotzeko zailtasunak, horien artean, bai sozietatea sortzerakoan ohikoa izaten den optimismoa, bai ondorengo estatutuen aldaketak bazkide gutzien adostasuna eskatzen duela, eta baita ere edozein kasutan beharrezkoa dela kausa edo konkurrentzia akreditatzeko modua era zehatzean jasotzea, estatutuan jasotako aurreikuspena orokorregia bada bai zapalkuntza eta oztopatze kasuetarako, zaila izango delako honen onarpena¹⁰³.

Honen aurrean, doktrinak¹⁰⁴ *de lege ferenda*, abusu kasu hauek banaketa eta kanporatze kausa bezala jasotzearen beharra aldarrikatu du. Honek harreman juridikoaren haustura erraztuko luke hau jasanezina bihurtzen denean, bai arbitrarioki jarduten duen gehiengoagatik kaltetua denean gutxiengoduna, edota alderantziz, gutxiengoa duten bazkideak euren posizioak baliaturik sozietatearen ohiko funtzionamenduari eragiten dienean.

⁹⁹ HERNANDO CEBRIÁ, Luis. (2013). *El abuso de la posición*, ob.cit. 273 or.

¹⁰⁰ KSLren 346 eta 350 artikuluan arautzen dira banatzea eta kanporatzea, hurrenez hurren.

¹⁰¹ MARTINEZ SANZ, Fernando. (1997). *La separación del socio en la sociedad de responsabilidad limitada*. Madrid: McGraw-Hill. 101-104 or.

¹⁰² SENENT MARTINEZ, Santiago. (2013). Abuso de minoría y ejecución. ob. cit. 14 or.

¹⁰³ BONARDELL LENZANO, Rafael eta CABANAS TREJO, Ricardo (1998). Separación y exclusión de socios en la sociedad de responsabilidad limitada. Navarra: Editorial Aranzadi.

¹⁰⁴ VÁZQUEZ LÉPINETTE, Tomas. (2012). La separación por justa causa tras las recientes reformas legislativas. *Revista de Derecho Mercantil*, 283, 169-196. 184 or; SANTAS FERMIÑAN, Javier. (2002). La exclusión del socio en la sociedad de responsabilidad limitada. 13 or.

Ildo honetan, **banatze eskubideari** dagokionez, Martinez Muñozek¹⁰⁵ gaitzesten du legegilearen aldetik sistema ixteko teknika baten falta. Hain zuzen, klausula orokor bat aurreikustea, zeinak ahalbidetuko duen auzitegiatarra jotzea banatzea eskatuz, beti ere “bidezko arrazoi” bat ematen denean. Egungo sistema, banatze arrazoiak zerrendatzean oinarritzen da, bai KSLan edota estatutuetan, baina honek ez du bermatzen banatze kausen arrazoigarritasuna. Izan ere, bazkideek ezin dituzte aurreikusi gerta litezkeen egoera guztiak, eta ondorioz sistemak ezin du eraginkorra izan. Horregatik, bidezko arrazoiaren klausula orokorra jasoko balitz, ordenamenduaren babesa merezi duten supostuak babesik gabe geratzea ekidingo litzateke.

Bestalde, aipatzekoa da, kapital sozietateen kasuan bidezko arrazoiगतिको banatzea aurreikusten ez den arren, Sozietate Zuzenbideak aukera hau jasotzen duela sozietate profesionalen (SPL 13 art.) eta ekonomia-intereseko taldeen kasurako (EITL 15 art). Ondorioz, gure sisteman berrikuntza bat ez izanda, ez da ulertzekoa zergatik ez den jasotzen aukera bera kapital sozietateen kasurako, eta batik bat, kapital sozietate itxien kasurako. Modu honetan, bidezko arrazoietan babestu ahalko lirateke sozietate itxietako bazkideak, beti ere harreman soziala jasanezina denean eta barne gatazka konpontzeko beste modurik ez denean¹⁰⁶.

Hala, bidezko arrazoi izango da edozein egoera edo portaera zeinak eragiten duen galdaezina izatea bazkideari sozietatean jarraitzea eskatzea, eta gainera, ez egotea arazoari konponbidea jartzeko beste modurik. Alfarak¹⁰⁷ bidezko arrazoi hauen artean bi egoera multzo aipatzen ditu. Batetik, iraunkorra den gatazka baten existentzia, eta honen oinarrian gehiengoaren portaera antiestatutario edo ilegala egotea. Bestetik, sozietatean hartzen diren erabakiek bazkidearen egoera juridiko eta ekonomikoari eragitea, eta hauek onartzea ez izatea exijigarria.

¹⁰⁵ MARTINEZ MUÑOZ, Miguel. (2015). El derecho de separación del socio en las sociedades de capital y su regulación en el anteproyecto de Ley de Código Mercantil. *CEFLegal: revista práctica de derecho. Comentarios y casos prácticos*, 175, 6-44. 36 or.

¹⁰⁶ MARTÍ MIRAVILLAS, Jaume. (2010). La ampliación del derecho de separación del socio en las sociedades de capital cerradas, *Simplificar el Derecho de Sociedades*-en HIERRO ANIBARRO, Santiagok zuzendua, Madrid: Marcial Pons. 495-516. 496 or.

¹⁰⁷ ALFARO ÁGUILA-REAL, Jesus. (1998). Conflictos intrasocietarios (Los justos motivos como causa legal no escrita de exclusión y separación de un socio en la sociedad de responsabilidad limitada). *Estudios de derecho mercantil: homenaje al profesor Justino F. Duque*, 89-112. 96 or.

Banatzeko eskubidearekiko egoera berdina ematen da oztopatzailea den bazkidearen **kanporatzeko aukerarekin**. Izan ere, abusua kanporatze kausen artean kokatzen ez den aldetik, estatutuetan jasotzea izango litzateke bidea. Kasu hauetan, doktrina aurreikuspen espresuen faltan, neurri hau baztertzearen alde agertzen da¹⁰⁸. Neurri honek bazkideen portaera oportunistei muga jartzeko balioko lukeela uste da, hala gutxiengoak jakingo lukeelako egiten duten eskubidearen egikaritzea ez badator bat helburu komunarekin, kanporatuak izan daitezkeela, disoluzio, likidazio eta sozietatearen berreraikitzearen gastuei aurre egin beharrik gabe¹⁰⁹.

Bestalde, banatze eskubideak zenbait arazo planteatzen ditu, hartzekodunen interesarekin eta sozietatearekiko banatzen den bazkideak izan lezakeen erantzukizun pertsonalarekin harremanetan. Horregatik, zuzenbide konparatuan planteatu izan da bazkideen irteera baliatzeko mekanismo izatea **derrigorrezko erosketa**¹¹⁰. Hau da, gehiengoak gutxiengodunaren parte hartzea bere gain hartza, bere portaera ez zilegi batengatik kaltetua izan den heinean¹¹¹. Modu honetan, derrigorrezko erosketa bilatzen duen akzioa (*buyout* anglosaxoi terminologian) izan liteke zapalkuntzari amaiera jartzeko modua. Bestalde, neurri honek ere zenbait zalantza sortzen ditu partizipazioaren balorazio eta kontrol prima delakoaren baztertzearen inguruan. Bigarren plano batean aipatzen da berriz kontrako aukera; hau da, derrigorrezko salmenta.

Laburbilduz, gatazka erroitik konpontzeko bidea izan daiteke banatzeko eta baztertze kausa legal justuak jasotzea. Era honetan, bazkideen arteko harreman juridikoa jasanezina denean, hau hausteko bidea erraztuko litzateke. Beti ere, kontuan izanez interpretazio hertsia egin beharko litzatekeela, eta zein den banatze eta baztertze instituzioen helburu eta izate arrazoia.

¹⁰⁸ RUBIO VICENTE, Pedro José. (2003). Una aproximación al abuso, ob. cit. 99 or. eta HERNANDO CEBRIÁ, Luis. (2013). *El abuso de la posición*, ob.cit. 231 or.

¹⁰⁹ PULGAR EZQUERRA, Juana. (2013). Reestructuración de Sociedades, ob.cit. 25 or.

¹¹⁰ HERNANDO CEBRIÁ, Luis. (2011). Del socio de control al socio tirano, ob.cit. 204 or.

¹¹¹ VÁZQUEZ LEPINETTE, Tomas. (2007). *La protección de las minorías societarias frente a la opresión*. Madrid: Civitas. 130 or.

- Bestelako neurriak

Orain artean aipatutako hiru ildoak dira doktrinak abusuaren ondorio gisa landu dituenak. Hain zuzen, erabakien deuseztasuna, epaileari exekuzio ahalmena aitortzea eta bazkideen irteera ekarriko duten neurriak. Esan dezakegu, neurri handi batean bigarren atalean aztergai izan ditugun gatazkei konponbidea ematen diela neurri hauek. Lehenik, deuseztasunak gehiengoak akordio bat hartu duen kasuetan. Bigarrenik, epailearen exekuzio ahalmenak gutxiengoaren portaera oztopatzaileei eta gehiengoa irabaziak ez banatzeari. Azkenik, banatze eskubidea aitortzeak eta bazkideen kanporatzeak, modu orokor batez, egoera jasanezina den muturreko edozein kasuri amaiera jartzeko balioko luke, gatazka errotik konpontzeko tresna bezala. Bestalde, badira zenbait kasuri aplikagarri izan daitezkeen bestelako neurri batzuk

Aurkatze eskubidearen abusuzko egikaritzea kasuetan, aurkapenak etengabeak badira eta oinarririk gabekoak, neurri egokiena mugatuko litzateke auzitegiek eskubidearen egikaritzea ukatu eta sozietateari eragindako kalteengatik kalte-ordaina ezartzera. Bestetik, erabakiak aurkatzearekin oztopatu nahi zen erabaki edo delakoa efektiboa egitea bilatu behar da. Esaterako, aurkatzearen helburua fusio bat erregistroan inskribatzea eragoztekoa bazen, aurkapena ukatu ez ezik, modu berehalakoan akordioaren exekuzioa eman beharko da.

Ikusi dugunez, aurkatze eskubidea zenbaitetan sozietatea ekonomikoki mehatxatzeko erabiltzen da, azken batean, bere egikaritzarekin probetxu ekonomiko bat lortzeko. Kasu hauetan, bazkide guztien arteko tratua beraren printzipioaren urraketara jotzea proposatzen da, edota ekarpen sozialengatik ezkutuko ordainsariak jasotzeko debekua aplikatzea¹¹². Neurri hauez gain, ezin da ahaztu, halako egoeretan posible dela zenbait tipo penal aplikagarri izatea, bai mehatxuak, estortsioa edota xantaia.

Azken azkenik, muturreneko kasuetan soilik aplikatzeko neurri gisa agertzen zaigu sozietatearen **disoluzioa**. Hau gerta liteke bai organo sozialen paralizatzea tarteko

¹¹² VELASCO SAN PEDRO, Luis Antonio. Acciones propias e igualdad de accionistas. Cuestiones de Derecho de Sociedades y de Derecho del Mercado de Valores. *Revista de Derecho de Sociedades*, 2, 9-52. 36 or.

disoluzio kausa ematen delako¹¹³, edo baita gehiengoak hala erabakitzen duelako¹¹⁴. Gehiengoaren esku dagoen aukera bat dela uler liteke, likidazioan sozietateak enpresaren nukleoa esleitzea lortuko balu eta modu honetan bazkide oztopatzaile gabe sozietate berri bat eratu objektu berberarekin. Hala ere, neurri hau hertsiki eskubide-abusuaren doktrinaren eremutik kanpo geratuko litzateke¹¹⁵

2.2. Kalte-ordaina

Abusuak jarraitzea eragozteko neurriez gain, kalte-ordainak eskatzeko aukera aitoritzen da KZren 7.2 artikuluan, eta hau izan da eskubide-abusuaren doktrinaren ohiko efektua. Kalte-ordainak eskuratzeko, beharrezko izango da frogatzea, lehenbizi, eskubide-abusu egoera baten aurrean gaudela, bigarrenik, kalte bat sortu dela, eta noski, bi hauen arteko kausalitate harremana¹¹⁶.

Legitimazio aktiboa, abusuarengatik kaltetuak izan diren subjektuek izango dute eta pasiboa, berriz, kaltea eragin dutenek. Beraz, gehiengoaren abusu kasuan, printzipioz, gutxiengoa izango da kalte bat jasan duena, eta ondorioz eurek eskatu ahalko dute kalteen ordaina. Bestalde, legitimazio pasiboa zehazteak arazo gehiago sortzen ditu. Zentzu hertsian, akordioak aurkatzearen erregimenaren aplikazio analogikoa egin ezker, akzioa sozietate beraren aurka zuzendu beharko genukeela ondorioztatuko genuke. KSLren 206.3 artikuluan modu argian jasotzen da aurkaratze akzioa sozietatearen aurka zuzendu behar dela. Bestalde, nahiz eta formalki kaltea sortzen duen akordioaren egilea sozietatea izan, materialki, kaltea gehiengoa duten bazkideek sortu dute. Ondorioz, arrazoizkoagoa dirudi kontrola duten bazkideen aurka zuzentzea akzioa, eta eurak izatea erantzule modu pertsonalean.¹¹⁷

Alabaina, planteamendua aldatu egiten zaigu gutxiengodunek jarduten dutenean abusuz. Izan ere, kasu hauetan kalteturik handiena sozietatea izaten da, eta ondorioz,

¹¹³ KSLren 363.1.d artikuluan jasotzen den kausa.

¹¹⁴ KSLren 368 artikuluan aurreikusten da Batzar Orokorraren erabaki bidez gertatzea disoluzioa.

¹¹⁵ GINÉS CASTELLET, Nuria. (2013). Impugnación de acuerdos sociales, ob.cit. 311 or.

¹¹⁶ GETE-ALONSO, Maria del Carmen. (1992). *Comentario al art. 7 del Código Civil, Comentarios al Código Civil y Compilaciones forales* (ALBALADEJO eta DÍAZ-ALABARTEk zuzendua). Madrid: Edersa. Ed.2. 863 or.

¹¹⁷ GINÉS CASTELLET, Nuria. (2013). Impugnación de acuerdos sociales, ob.cit. 313 or.

berak izango du legitimazio aktiboa. Aldiz, jarrera oztopatzaileek eragin badute sozietatea desegitea, gehiengo duten bazkideek erreklamatu ahal izango dituzte kalte-galerak. Edozein kasutan, bazkideek kalte pertsonal bat jasan badute, horiengatik kalteen ordaina ere eskatu ahal izango dute.

Erantzule diren subjektuei dagokionez, oztopoak jartzen dituen bazkide bakarraren kasuan ez zaigu arazorik planteatzen. Bai aldiz, bazkide ugari parte hartzen dutenean, eta guztien konkurrentzia beharrezkoa izan denean blokeoa sortzeko. Doktrina frantziarrak¹¹⁸ kasu hauetarako proposatzen du boto eskubide bakoitza eta bere egikaritzea edo ez egikaritzea nahitaezkoa dela emaitza kaltegarria sortzeko, eta ondorioz, boto eskubidearen titular bakoitza dela indibidualki emaitzaren erantzule. Era honetan, ez legoke zertan demanda parte hartze handiena duenaren aurka zuzendu, horietako baten aurka zuzentzea nahikoa izango litzateke.

V. ONDORIOAK

Sozietateen bizitzan bazkideen parte hartze pluralak dakar interes kontrajarriek talka egitea. Esan dezakegu, neurri batean hau ekidin ezina den kontua dela, bat ez datozen interesak azaltzea edozein antolakuntzetan gertatuko baita. Marko honetan aurkitzen ditugu sozietateen bizitzan oso ohikoak diren abusu portaerak, non bazkideek euren posizio juridikoaz baliaturik eskubideak abusuz egikaritzen dituzten.

Gehiengoaren kasuan, ikusi dugunez, Batzar Orokorraren baitan ematen dira abusu portaera gehien: irabaziak ez banatzean, estatutu aldaketetan eta batzarrerako deialdia egitean. Gutxiengoaren kasuan, ohikoena da batzarrak erabakiak hartzea oztopatzeko portaerak burutzea, eta honez gain kontrol-eskubideak eta ekimen-eskubideak egikaritzean ere abusuz jarduten dutela ikusi dugu.

Mota hauetako gatazken aurrean, lehenbizi balio-judizio bat egin beharko da ikusteko zein den bazkideen jokaera, bai beste bazkideekiko eta bai sozietatearekiko, eta baloratu ea portaera hori interes sozialari zor zaion fideltasunarekin bat datorren. Bestalde, ikusi dugunez, balorazio hau egitea konplexua da. Lan honetan aztertu

¹¹⁸ GINÉS CASTELLET, Nuria. (2013). Impugnación de acuerdos sociales, ob.cit 314 or

beharko da bazkideek eskubidearen mugetatik haratago jarduten duten, eta hala bada beharrezkoa izango da kaltetuak babestea.

Kaltetuak babesteko helburu horretan, Sozietate Zuzenbideak modu espezifikoan erantzuten ez dienez halako egoerei, eskubide-abusuaren doktrinara jo beharko dugu. Beti ere, kontuan izanez honen aplikazioak salbuespenezko izaera izango duela.

Egun, hau da sozietateen bizitzan ohiko diren gatazkei aurre egiteko erabiltzen den konponbidea, baina ikusi dugunez beharrezkoa da tresna eta mekanismo berrietan aurrera egitea, kaltetutako bazkidearen benetako babesa lortzeko.

Guzti honegatik, beharrezkoa da ohiko konponbideez gain, bi ildo nagusitan aurreratzea. Batetik, epaileari jarduteko ahalmen zabalagoa aitortzen. Egia da, ahal den neurrian sozietatearen bizitzan inbromisioak ekidin behar direla, baina interes soziala dagoeneko urratua dagoen kasuetan epaileari aitortu behar zaio honi amaiera jartzeko boterea. Esaterako, irabaziak banatzerako kasuan bezala, ez banatzeko akordioa deuseza deklaratzeko ez da nahikoa izango, honekin batera epaileak irabaziak banatzea ez badu agintzen. Hartutako neurriak eraginkorrak izan daitezten, beharrezkoa izango da zenbaitetan epaileak aktiboki jardutea.

Bestetik, ikusi dugu egoera jasanezina bihurtzen den kasuetarako, bazkideari ez zaiola inolako irtenbiderik aitortzen. Horregatik, beharrezkoa da sozietateak inolako onurarik ekartzen ez dion eta zapaldua den bazkideari sozietatetik irteteko banatze-eskubidea aitortzea. Aldi berean, ahalbidetu beharko litzateke sozietatearen ohiko jarduna oztopatzea helburu duen bazkidea baztertzea. Izan ere, iraunkor eta sistematiko bilakatzen diren gatazkei amaiera jartzeko bidea, halako neurri zorrotzagoetara jotzea da.

Egindako azterketarekin esan dezakegu, bazkide arteko gatazkek eta abusu portaerek ohikoak izaten jarraitzen dutela. Hauei amaiera jartzeko ez dago bide edo tresna bakar bat, kasu bakoitzeko egoera eta baldintzak kontuan izan beharko baitira konponbidea bilatzeko. Bestalde, doktrinarekin bat etorritik, beharrezkoa da epaileari jardute ahalmen handiagoa aitortu eta bazkideei irteera bideak aurreikustea. Orain arte erabili izan diren konponbideei berriak gehituz eta kasuz kasu eraginkorrena izango dena hautatuz lortuko baita abusuri amaiera jartzea.

BIBLIOGRAFIA

- ALCALÁ DÍAZ, María Ángeles. (1997). El conflicto de interés socio-sociedad en las sociedades de capital. *Revista de Derecho de Sociedades*, 7, 89-142.
- ALFARO ÁGUILA-REAL, Jesus. (1998). Conflictos intrasocietarios (Los justos motivos como causa legal no escrita de exclusión y separación de un socio en la sociedad de responsabilidad limitada). *Estudios de derecho mercantil: homenaje al profesor Justino F. Duque*, 89-112.
- ALTIRRIBA VIVES, Xavier eta CUENCA MÁRQUEZ, Juan. (2013). El derecho de separación y la figura de la exclusión de socios. *Iuris: actualidad y práctica del derecho*. 198. 30-36.
- BONARDELL LENZANO, Rafael eta CABANAS TREJO, Ricardo (1998). *Separación y exclusión de socios en la sociedad de responsabilidad limitada*. Navarra: Editorial Aranzadi.
- CARRASCO PERERA, Angel. (2001). Comentario al art. 7.2, *Comentarios al código civil-en*, BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigok zuzendua, 3. Ed, Navarra: Thomson-Aranzadi.
- CARRASCO PERERA, Angel. (2014). Abuso de derecho de la mayoría, conflictos de intereses y lesión del derecho de información en el Proyecto de Reforma LSC. <http://www.gomezacebo-pombo.com/media/k2/attachments/abuso-de-derecho-de-la-mayoria-conflictos-de-intereses-y-lesion-del-derecho-de-informacion-en-el-proyecto-de-reforma-lsc.pdf> 2016/04/17an ikusia
- CASTÁN VÁZQUEZ, José María. (1977). *El abuso del Derecho en el nuevo Título Preliminar del Código Civil*. Madrid: Edersa.
- CHAMPUD et DANET. (2006). Abus de majorité. Rémunération des dirigeants. Dépenses de communication. Mise en réserve des bénéfiques. Décisions constitutives d'abus de majorité. *Revue Trimestrielle de Droit Commercial*. 376-377.
- CUADRADO PÉREZ, Carlos. (2014). *La moderna configuración de la doctrina del abuso del derecho*. Madrid: Thomson Reuters Aranzadi.
- DIEZ PICAZO, Luis. (1974). El abuso del derecho y fraude de ley en el nuevo Título Preliminar del Código civil y el problema de sus recíprocas relaciones. *Documentación jurídica*, 1333 or.

- FERNANDEZ DE LA GÁNDARA, Luis. (2010). *Derecho de sociedades. Vol I*. Valencia: Tirant lo Blanch. Ed. 1.
- GETE-ALONSO, Maria del Carmen. (1992). *Comentario al art. 7 del Código Civil, Comentarios al Código Civil y Compilaciones forales* (ALBALADEJO eta DÍAZ-ALABARTEk zuzendua). Madrid: Edersa. Ed.2.
- GINÉS CASTELLET, Nuria. (2013). Impugnación de acuerdos sociales y abuso de derecho: algunas reflexiones para el ordenamiento jurídico español a la luz de la experiencia francesa. *Revista de Derecho de Sociedades*, 40, 273-315.
- GOMEZ LAPLAZA, Maria del Carmen. (2006). Abuso del Derecho. *Revista de derecho privado*, 90, 3-74. 35 or.
- HENAO BELTRÁN, Lina. (2014). El abuso de la posición jurídica del socio. *Revista E-Mercatoria*, 13, 97-129.
- HERNANDO CEBRIÁ, Luis. (2011). Del socio de control al socio tirano y al abuso de la mayoría en las sociedades de capital. *Revista de Derecho de Sociedades*, 37, 173-205.
- HERNANDO CEBRIÁ, Luis. (2013). *El abuso de la posición jurídica del socio en las sociedades de capital*. Barcelona: Bosch.
- IBAÑEZ GARCIA, Isaac. (2011). *Sobre el derecho obligatorio al dividendo ¡Qué barbaridad!*. <http://hayderecho.com/2011/07/27/sobre-el-derecho-obligatorio-al-dividendo-%C2%A1que-barbaridad/> 2016/04/18an ikusia.
- IRACULIS ARREGUI, Nerea. (2011). Impugnación del acuerdo de no repartir dividendos: atesoramiento abusivo de los beneficios. *Revista de Derecho Mercantil*, 281, 251-270.
- IRIBARREN, Miguel. (2015). *Los acuerdos de retención de beneficios y la protección de la minoría en la sociedad limitada*. <http://almacendederecho.org/los-acuerdos-de-retencion-de-beneficios-y-la-proteccion-de-la-minoria-en-la-sociedad-limitada/> 2016/04/17an ikusia.
- LOPEZ LOPEZ, Angel. (2012). *Fundamentos del Derecho civil. Doctrinal generales y bases constitucionales*. Valencia: Tirant Lo Blanch.
- LÓPEZ MEGÍAS, Javier. (2013). Abuso de mayoría y de minoría en las sociedades de capital cerradas. *Revista de derecho bancario y bursátil*, 132, 7-50.
- LUCAS MARTIN, Elisa Pilar. (2013). *Somera descripción de la lógica del artículo 348 bis LSC*.

http://eprints.ucm.es/21684/1/Somera_descripci%C3%B3n_de_la_l%C3%B3gica_del_art._348_bis_LSC.pdf 2016/04/18an ikusia.

- MARÍN DE LA BÁRCENA GARCIMARTÍN, Fernando. (2010). Opresión de la minoría, STS 1ª de 5 de marzo de 2009 (RJ 2009, 1629). *Revista de derecho de sociedades*, 34, 331-346.
- MARTÍ MIRAVILLAS, Jaume. (2010). La ampliación del derecho de separación del socio en las sociedades de capital cerradas, *Simplificar el Derecho de Sociedades-* en HIERRO ANIBARRO, Santiagok zuzendua, Madrid: Marcial Pons. 495-516.
- MARTIN BERNAL, Jose Manuel. (1982). *El abuso del derecho*. Madrid: Montecorvo.
- MARTINEZ MUÑOZ, Miguel. (2015). El derecho de separación del socio en las sociedades de capital y su regulación en el anteproyecto de Ley de Código Mercantil. *CEFLegal: revista práctica de derecho. Comentarios y casos prácticos*, 175, 6-44.
- MARTINEZ SANZ, Fernando. (1997). *La separación del socio en la sociedad de responsabilidad limitada*. Madrid: McGraw-Hill.
- MOSQUERA VALDIVIELSO. (2014). Nueva suspensión temporal de la aplicación del art 348 bis LSC (derecho al dividendo o separación).
<http://www.gmvabogados.es/actualidad/nueva-suspension-temporal-de-la-aplicacion-del-articulo-348-bis-lsc-derecho-al-dividendo-o-separacion>
 2016/04/18an ikusia.
- PALOMBELLA, Gianluigi. (2006). El abuso del derecho, del poder y del rule of law. *DOXA, Cuadernos de Filosofía del Derecho*, 29.
- POLO SANCEHZ, Eduardo. (1995). Abuso o tiranía. Reflexiones sobre la dialéctica entre mayoría y minoría en la sociedad anónima. *Revista Jurídica del Notariado*, 14, 51-90.
- PULGAR EZQUERRA, Juana. (2013). Reestructuración de Sociedades de Capital y Abuso de Minoría. *Revista de Derecho Bancario y Bursátil*, 129, 7-34.
- ROCA JUAN, Juan. (1977). *Comentarios a las reformas del Código civil. El nuevo Título Preliminar del Código y la Ley de 2 de mayo de 1975. Vol I*. Madrid: Tecnos.
- RUBIO VICENTE, Pedro José. (2003). Una aproximación al abuso de minoría en la Sociedad Anónima. *Revista de Derecho de Sociedades*, 21, 81-108.

- SANCHEZ RUIZ, Mercedes. (2000). *Conflictos de Intereses entre Socios en Sociedades de Capital:(artículo 52 de la Ley 2/1995, de 23 de marzo)*. Navarra: Editorial Aranzadi. 230 or.
- SANCHEZ-CALERO GUILARTE, Juan. (2011). *Seqüía de dividendos y abuso de la mayoría*.<http://jsanchezcalero.com/sequia-de-dividendos-y-abuso-de-la-mayoria/> 2016/04/17an ikusia.
- SANTAS FERMIÑAN, Javier. (2002). La exclusión del socio en la sociedad de responsabilidad limitada.
- SENENT MARTINEZ, Santiago. (2013). Abuso de minoría y ejecución judicial de acuerdos sociales no adoptados o rechazados. *EPrints Complutense*, 78, 13-31.
- VARGAS CAMPINS, Aurora eta ALFARO ÁGUILA-REAL, Jesús ALFARO. (2011). El abuso de la mayoría en la política de dividendos. Un repaso por la jurisprudencia. *Otrosi*, 5, 19-26. 22 or.
- VARGAS CAMPINS, Aurora eta ALFARO ÁGUILA-REAL, Jesús. (2014). Abuso de la mayoría en el reparto de dividendos y derecho de separación del socio en las sociedades de capital. *Liber amicorum Juan Luis Iglesias*. 65-93.
- VÁZQUEZ LEPINETTE, Tomas. (2007). *La protección de las minorías societarias frente a la opresión*. Madrid: Civitas. 130 or.
- VÁZQUEZ LÉPINETTE, Tomas. (2012). La separación por justa causa tras las recientes reformas legislativas. *Revista de Derecho Mercantil*, 283, 169-196.
- VELASCO SAN PEDRO, Luis Antonio. Acciones propias e igualdad de accionistas. Cuestiones de Derecho de Sociedades y de Derecho del Mercado de Valores. *Revista de Derecho de Sociedades*, 2, 9-52. 36 or.
- VICENT CHULIÁ, Francisco. (2012). *Introducción al derecho mercantil. Vol I*. Valencia: Tirant lo Blanch. Ed. 23.

JURISPRUDENTZIA ETA EPAIAK

Auzitegi Gorenaren epaiak

AGE 2011-07-19 (EDJ 2002/15328)
AGE 2010-03-16 (RJ 2010\3793)
AGE 2006-09-20 (EDJ 2006/265925)
AGE 2005-05-26 (RJ 2005\5761)
AGE 2004-07-29 (RJ 2003\146424)
AGE 2003-12-12 (EDJ 2003/186200)
AGE 2003-05-08 (EDJ 2003/17122)
AGE 2002-05-22 (RJ 2002\14760)
AGE 2002-12 -27 (RJ 2002\8252)
AGE 2001-09-26 (RJ 2001\29047)
AGE 2000-09-16 (RJ 2000\7628)
AGE 1996-10-10 (RJ 1996\7063)
AGE 1992/02/20 (RJ 1992\1418)
AGE 1980-07-7 (RJ 1980\3301)
AGE 1968-02-16 (RJ 1991\1512)

Entzutegi Probintzietako epaiak

EPE Barcelona 2011-01-21 (JUR 2011\182705)
EPE Islas Baleares 2010-12-22 (JUR 2011\106693)
EPE Araba 2010-10-19 (JUR 2010\48604)
EPE Alicante 2010-07-15 (AC 2010\1506)
EPE Ourense 2010-02-25 (JUR 2010\209293)
EPE Madrid 2009-12-23 (JUR 2008\167454)
EPE Madrid 2009-09-24 (JUR 2009\470747)
EPE Valencia 2008-10-13 (AC 2008\ 2073)
EPE Alicante 2000-09-27 (JUR 2001\ 6706)